

# Karkara

*karkara.eus*

 Orioko eta Aiako aldizkaria · 2016ko ekainaren 24a · 374. zenbakia. 26. urtea



## Senari jarraituz bidea egiten

Indian izan dira Shua Larrañaga eta Iñaki Verhegge. Orain Nepalen daude eta Laos, Kanbodia, Thailandia eta Filipinak bisitatu nahi dituzte.

**9**

**Erreportajea**

Elkanoren dokumentuak

**10**

**Akuilua Hartuta**

Meltxor Artetxe

**20**

**Argazkiak**

Anibarko Portuko festak

**32**

**Kritika**

Harribil eta Korrontzi

**LUXARBE**  
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoar: 943 83 59 00

**ZAUDEN  
LEKUAN  
ZAUDELA**

karkara.eus

Muxutruk  
Loredenda

Eusko Gudari 11 - Orrio  
Tel: 943 834117 / 627630022

**BPXport**

Santio Erreka Auzoa, 910 Ala  
Tel. 943 89 44 28  
www.bpxtecnificacion.es

**Karelako bazkideentzako %15 dktu gure zerbitzuetan:**

- ① NUTRIZIOA
- ① KIROL MEDIKUNTZA
- ① PRESTAKUNTZA
- ① BIOMEKANIKA
- ① HIPOXIA

**ORIA**  
hortz klinika

Arrantzale kalea, 63 behea  
20810 ORIO  
Tel.: 943 83 36 45

Orria Hortz Klinikak **ORTODONTZIA** zerbitzu berria jarri du martxan.

Prebentzioa ezinbestekoa dela jakinda, hartu aurre-erorkizunean sor daitezkeen arazoak.

**Kostera**

Arraiak  
zure arrandegia

**EUSKO GUDARI, 4**

Astelehenetik larunbatera 08.30-13.30 Astearte, asteazken eta ostegunetan 17.00-19.30

# Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

**Kultur etxea**

20810 Orio

943 83 15 27

karkara@karkara.com

www.karkara.com

**Editorea**

Karkara taldea  
kultur elkarte

**Erredaktore burua**

Miriam Garcia

**Erredakzio taldea**

Onintza Aiestaran,  
Olatz Artola,  
Iñigo Exposito,  
Jon Garate,  
Elizabete Manterola  
eta Rikardo Uzkudun

**Publizitatea**

Idurre Telleria

**Ale honetako kolaboratzaileak**

Meltxo Artetxe  
Estela Atorrasagasti  
Mireia Atorrasagasti  
Iñigo Gaiton  
Orioko GED  
Iñaki Iturain  
Begoña Ruifernandez  
Xabier Sukia  
Goiuri Unanue

**Diseinua**

Saioa Perona

**Banatzailleak**

Rodolfo Jimenez eta  
Ibon Berasaluze (Orioko)  
Eli Irureta (Aia)

**Inprimategia**

Gertu Koop. E. (Oñati)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.



Gasteizko Andre Maria Zuriaren plaza.

## HASI BERTSOTAN

**XABIER SUKIA**

# Gasteiztik bueltan

**1**

Gaur autobusa ta bihar tren,  
bizikletari ere dale;  
irratin sartu eta agurtu  
epa kaixo bertsojale.  
Esataria, irratilari  
ni ez bainaiz arrantzale,  
kilometroak egiten ditut  
ta egin nahi nituzke ole!  
joan ta etorri baldin banabil  
bizirik nagon seinale.

**3**

Kilometroak egin ta egin  
nabil tren baten antzeko  
baina gutxinez badaukat lana  
ta ez nago kexatzeko.  
Gasteiz aldean oriotar hau  
hartu zutenez etxeko  
egin ta egin, joan ta etorri,  
etorri ta bueltatzeko...  
batzuk gehiago ei(g)ten dituzte  
presoak bisitatzeko.

**2**

Familia bat daukat etxean,  
hiru ume aldamenen,  
gauetan altxa egin behar da  
txikia esnatzen denean;  
hor ere nabil joan ta etorri  
kilometroen planean,  
ta Gasteizera txistua joaz  
kantari nijoanean,  
nire oporrak hasten baitira  
lanen sartzen naizenean.



**LAGUNTZAILEAK**



Aiako Udala



Orioko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK  
(Hizkuntza Politikarako Saiburuordetzak) diruz lagundua

## Plaza oinezkoentzat!

Orain ere iritsi zaigu batere gustatu ez zaigun zurrumurru bat. Diotenez, hainbat merkataria eta tabernari astebukaratan plaza kotxeentzat ixtearekin ez daude konforme eta irekitzeko eskaera egin dute. Horretarako arrazoiak bat edo beste izan, guk, Orioko guraso talde batek, astebukaratan ez ezik, aste egunetan eta, batez ere, uda garaian, plaza inguruan oinezkoen lehentasuna onuragarria dela uste dugu.

Haurrak ez ditugulako parkean bakarrik hezi nahi. Herrian, herriko plazan ere ibili behar dute; guraso, aiton-amonak eta herritarren artean.

-Herritar oro biltzeko gune naturala sortzen delako.

-Oinezkoentzako gune seguruagoa bilakatzen delako.

-Kotxeek sortutako kutsadura murrizten delako.

-Bere garaian hainbat eragile eta norbanakakok eratutako Topagune Berdeak ere horren aldeko arrazoiak eman zituelako egindako mugikortasun txostenean.

Herri eta hiri gehienetan oinezkoentzako guneak egokitzearen aldeko apustuak gero eta nabarmenagoak diren garaian, ez ote da Orioko atzerako bidean jarriko? Ez genuke hori nahi.

■ **Orioko guraso talde bat**

## Eskerrik asko Kaiua tabernako urteak politik egiteagatik!

Kaiua tabernak ateak itxiko ditu. Gure agurrean eskerrak eman nahi dizkiegu Anibarko Portuko auzokide guztiei, lau urte hauek politik egiteagatik. Eskerrik asko guzti-guztiei!

■ **Inma Gotan**

## Eskerrik asko Inma eta Josu

Anibarko Portuko Kaiua taberna hartu zenuten orain dela lau urte. Ekainaren

## Gutunetako argibideak

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidali daitezke karkara@karkara.com helbidera edo gure lokalera eskura ekarri (Orioko edo Aiako Kultur Etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio. KARKARA bere egiten du eskutizak laburtzeko eskubidea.

bukaeran amaiera emango diozue hemengo ibilbideari. Denbora honetan lan bikaina egin duzue eta auzoak beste itxura bat hartu du Kaiuari esker. Gogoan izango ditugu luzaroan ostirale-tako pintxo-poteak eta zuen jarrera gertukoa eta baikorra.

Auzokoen izenean har ezazue gure eskerririk beroena eta zorte ona izan dezazuela ondorengo ibilbidean.

Inma, Josu, Anibarko Portuan beti izango duzue toki bat zuentzat. Nahi duzuen arte. Besarkada bana.

■ **Anibarko Portuko auzokoak**

## Kexa bat

Kexa bat egin nahi dut lehengo igandean neskek bandera irabazi eta, ohi den bezala, errezipimendua egin zitzaion arren, txaranga ez zelako han egon, ezta tokadisko bat ere, Aliron kantuarrekin. Pena eman zidan, neskek ere beren ahalegina egiten dutelako, mutilek bezala; edo gu, neskak, oraindik bigarren mailakoak al gara? Garaia bada berdintasunera denok heltzeko.

■ **Izaskun Arruti**

## Orion konponbidean al goaz?

2015 urtean zehar herritar talde bat el-

kartu ginen, gure herrian biolentzia politikoak eta terrorismoak izandako eraginaren inguruan hausnartzeko, Udalak eta Bakeolak proposatuta.

Hainbat saio egin ditugu, nor bere bizipenak partekatuzko gainerako taldekideekin.

Prozesuaren etapa bat osatuta, elkarrekin ibilitako bidea urratzen jarraitu nahi dugu.

Horretarako, jende berriaren parte-hartzea oso aberasgarritzat jotzen dugu. Urriko hirugarren asterako, pare bat ekitaldi proposatuko ditugu, herrikide guztiei irekiak. Zine-ziklo baten bitartez, aukera zabaldu nahi dizuegu herritar guztioi, gaia hausnartu eta partekatuzko.

Urtetan isiltasuna nagusitu izan da eta uste dugu garai aproposa dela, pikanaka, eta errespetuz, elkarren ondoran bizi garenon bizipenak elkarri kontatu eta partekatuzko.

Udatik bueltan zine-ziklora hurbiltzeko gonbita luzatuko dizuegu herritar guztioi. Ordura arte.

■ **Herritar talde bat**

## Gaztelua kartzela bihurturik

Maria naiz, 41 urte ditut eta alkoholika naiz. Nire etxeko gaztelua kartzela bihurtu zen alkohola nire bizitzaren zuzendari bilakatu zenean. Etxean eta ezkutuan edaten nuen.

Itxuraz, arazorik gabeko emakumea: diru arazorik ez, familia ederra, lana, sozialki ondo ikusia... baina beldur eta zalantza askoz beteriko emakume gazte bat izan naiz beti.

Perfektua izen beharra alor guztietan: ama paperean, ematearenean, alaren paperean... eta beldur eta konpromiso guztiei aurre egin behar horretan, nire gabeziak estaltzeko alkoholarekin hasi nintzen jolasean. Hainbeste aldiz esaten den marra fin eta ikustezen hori pasa nuen.

Etxean ez genuen edateko ohitura handirik, baina beti zegoen ardo edo

sagardo botilaren bat norbait etxera etortzen zenerako –lehenago ohitura zaharrak jarraituz–.

Ardo pare batekin hasi nintzen, egunerokotasunari aurre egiteko indar faltu hori ematen zidala sentitzen nuen; geroxeago, sarriago eta kantitate handiagoan izatera pasa zen eguneko pare. Ondorioak laster batean etorri ziren.

Kalean ez zidaten edaten ikusten, baina nire gotorlekuan neukan nire bodega propioa eta ez nuen taberna batera joan beharrik alkohola edateko. Nahiago nuen erosi, ezkutatu eta isilpean edan.

Nire eguneroko errutina bilakatu zen. Alkoholaren mende bizi nintzen eta gainontzekoa bigarren maila batean gelditu zen. Nola literke egoera horretara iristea? Nik ere nire buruari askotan galdetzen nion hori, baina ez nuen erantzunik jasotzen.

Edanaren ondorioz sortutako hainbeste gezur, haserraldi eta gertakari penagarriren ondoren, gehiago ez nuela edango hitzeman nuen, baina ezin. Behin eta berriz zulo beltzean erortzen nintzen eta arazoak gero eta handiagoak bihurtzen joan ziren, nire duintasuna eta printzipioak erabat galdu nituen.

Alkoholarekin arazo handia nuela banekin, nire jarrera ez baitzen batere

## Laguntzaileen kuotak ekainean eta uztailean

KARAKARA proiektua sostengatzen duzuenoi jakinarazi nahi diezuegu laguntzaile kuotak ekainean eta uztailean kobratuko ditugula. Eta, noski, eskerrak eman nahi dizkizuegu babes emateagatik. Zuen aportazioagatik ez balitz ezingo genuke ez eguneroko webgunea elikatu, ezta hileroko paperekoa argitaratu ere. Eskerrik asko laguntzagatik, mila esker proiektuaren parte izateagatik!

normala. Akohola hainbat dendetan erosten nuen, dendaria konturatu ez zedin. Etxeko armairu, garaje eta leku pentsaezin guztiak ziren nire drogaren ezkutaleku.

Izaera zeharo aldatuta, triste nengoen. Jendaurrean egoteko beldurra nuen, etxeko en begiradak... betebeharreri aurre egiteko ez nintzen gai eta zulo ilun batean murgildu nintzen.

Hau guztia aldatzeko nahia izan zen lehenengo eta indarrak hartuta bizitza berri bat eraikitzen erakusten ari zaidan ate bat ireki zen nire parean.

Gizon, emakume, ezkondu, ezkongabe, banandu, sendagile, etxekoan-

dre, jubilatuta, langabetu, heldu eta gazte; guztiok ezberdinak gara eta denok arazo berdina daukagu: alkoholismoaren gaixotasuna dugunok osatzen dugu taldea.

Ez nago bakarrik, gaixotasunaren ezaugarri eta bizitzari aurre egiteko erremintak eskura jarri eta aurrera goaz. Pixkanaka baina patxadarik hartu gabe. Alkoholik probatu gabe aurrera egiten ari naiz, bizitza ilun hori atzean utzita, baina ahaztu gabe nondik eta zergatik gatozen. Ilusioa berreskuratzen ari gara.

Zoritxarrez, gaixotasun hau pairatzea eta emakumea izatea, gainera, oraindik okerrago ikusia dago gizarte honetan. Egoera antzekoa jasaten ari diren emakume gehiago ere badaude.

■ **Emakume bat**

## Uda aurreko azken papereko KARKARA

Iritsi da uda eta eskuartearen duzuna da uda aurreko azken papereko zenbakia. Uztailean ez da paperekorik egongo, baina sarean egunero-egunero ibiliko gara, KARKARA.eus-en albisteak argitaratzen eta sare sozialetan horiek elkarbanatzen. Abuztuan, azken urteetan egin bezala, papereko zenbakia izango da, arinagoa, udan jazotakoa laburtuko duena. ■ **KARKARAKO lan taldea**

## ■ ZORIONAK!

### Zorionak Etxeluzeri

2010eko uztailean hasi zuen ibilbidea Etxeluze Gaztetxeak. Orioko eraikin enblematiko bat okupatuz hasi zen dena eta, gaur, sei urte geroago, teilatu berriarekin, aurpegi berriarekin, bizi berri bat hasi du Etxeluzek. Uztailearen 2an, larunbatean, ospatuko dute seigarren urteurrena, herri bazkari, joko eta kontzertuekin. Zorionik beroenak Etxeluze Gaztetxeari eta beste hainbeste urtetan jarrai dezala, gutxienez!

## ■ JAIOTZAK

- Oihan Iribar Fernandez, Orion, maiatzaren 27an.
- Julen Murgiondo Otazua, Orion, maiatzaren 24an.
- Lore Amuskibar Zulaika, Orion, maiatzaren 23an.
- Asiza Achir Mohamed Andala, Orion, maiatzaren 19an.
- Unax Huegun Plazaola, Orion, maiatzaren 14an.
- Haizea Larrañegi Paredes, Orion, maiatzaren 5ean.

## ■ EZKONTZAK

- Ibai Manterola eta Miren Etxeniz, Orion, ekainaren 4an.
- Roberto Duran eta Maria Concepcion Garcia, Orion, maiatzaren 27an.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria Karkaran jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:  
**943 83 15 27**



Orioko mutilak Sevillako estropadan. JESUS LEON



Orioko Futbol Taldeak denboraldi amaieran bazkaria egin zuen. OFT



lazko sanpedroei Loretxukoek eman zieten hasiera. KARKARA

# Udarekin, lehia eta festa

“Arrauna hastearekin batera hasten dira udako festak, iristen dira herriko jaiak”

**E**uskal Herriak folkloretik asko du. Begi bistakoa da hori Orioko eta Aiako agenda begiratzuz gero. Ezer eta festa da gurean; eta, festa denean, triki doinuan dantza egiteko, edo indarrak harri baten kilo kopurutan edo sokari tiraka neurtzeko aitzakia daukagu. Euskaldunak ez direnek estereotipo horiekin lotzen gaituzte euskaldunok; eta, estereotipoek, sarritan, norabide okerra hartu arren, sustraiak dituztelako sortzen dira.

Estereotipoak sustraitze horretan turismoak eragiten du. Herri kirolekin eta trikitixarekin ez zik, arrauna ere bada turistak erakartzeko amua. Kantauri itsasotik hegoaldeko uretara joan dira arraunlariak San Miguel Ligari hasiera ematera. Estereotipoak muturrera eramanda, sevillarrek euskaldunak arraunari tiraka, itsasoari orrua ateratzen eta tostari lotuta bizi garela usteko dute. Estatxa askatu eta denboraldiko lehen paladak eman dituzte mutilek. Neskak etxean emango diote hasiera denboraldiari, kanpora begira jarri baino lehen Euskal Herrian bertan promozionatu behar baitute emakumeen arrauna. Baita KAE ligakoena ere.

Arrauna hastearekin batera bukatu da futbol denboraldia, eta jai giroan eman dio bukaera Orioko Futbol Elkartek; arrauna hastearekin batera hasten dira udako festak, iristen dira herriko jaiak. San Joan egunean banatuko zaizue KARKARAREN zenbaki hau, suaren bueltan dantza egingo duten egunean. Eta ate joka daude sanpedroak. Bost eguneko festa izango da, ekainaren 28an hasi eta uztailaren 3an bukatu dena. Barruan duzue egitaraua, ohi bezala, ekitaldiz josia. Eta, azken orrialdean dituzue Aiako auzoetako festen egitarauak, horiek ere mardulak: Iturriozko sanjoanak, Elkanoko sanpedroak eta Andatzako sanpedroak. Festarako aukera bada behintzat! Ondo pasa, pasatu gabe!

# Beharrezkoa al da udan kanpora joatea oporrez gozatzeko?



“Hemen geldituta ezin dut deskonektatu”

**U**dako oporrak herrian pasatzen ditut, udara baita guretzat lan gehien egiten den urte sasioa. Lanegatik taberna eta txoko oso politak ikustea tokatzen zait, komertzial lanetan ibiltzen bainaiz, tabernetara edariak eta kontserbak ematen.

Momentu eta toki guztiak disfrutatzea gustatzen zait, eta hemen horretarako paisaia eta toki oso politak daude. Baina, lanetik deskonektatzeko, beste kultura eta beste herrialdeak ezagutzeko kanpora joatea gustatzen zait. Hemen geldituz gero ezin izaten dut deskonektatu. Askok gustatzen zait bidaiatzea, nahiz eta nahi baino opor gutxiago edukitzen ditudan.

**Eneko Galarraga**



“Ohitu egin naiz eta gustura geratzen naiz hemen”

**N**ere kasuan ez. Arraunarekin lotuta nago udan, garai horretan izaten baitugu denboraldia. Nire kasuan oporrak beste modu batera antolatzen ditut. Udan ez ditut oporrak aprobetxatzen kanpora joateko, aste santuan edo zubiren batean jotzen naiz kanpora.

Hasieran, traineruarekin hasi ginean gehiago kostatzen zitzaidan, baina orain ohitu egin naiz hontara eta gustura geratzen naiz hemen. Udan pentsatzen dut joango nitzakela, baina denboraldia bukatzean pentsatzen dut merezi izan duela ez joatea oporretara. Oporretan ez da beharrezkoa kanpora joatea, hemen geratzea ere ondo dago.

**Nadeth Agirre**



“Itsasoa eta ibaia pauso bakarrera dauzkagu”

**U**dan eguraldiak gorabehera asko dituen arren, orokorrean giro ona egiten du; zorionez, itsasoa eta ibaia pauso bakarrera dauzkagu eta aukera zabala dugu uretako jarduerak egiteko; surfa, bodyboarda, arrauna... Mendi irteerak egiteko ere aukera ezinhobea dugu; Santiago bidearen zatitxo bat, inguruko merenderoetara txangoa... Gainera, udan herrietako festak ere izaten dira: Sanferminak, sanpraxkuak, sanpedroak... giro paregabea ziurtatuta izaten dugu. Beraz, udan gozatzeko kanpora joan behar dela pentsatzen duena ez da oharitzen inguruan duenaz. Pribilegiatuak gara bizi garen tokian bizitzeagatik.

**Gorka Garcia**

**IGLESIAS SARRAILAGILEAK**

24 ORDUKO ZERBITZUA

Javier Iglesias Fernández  
637 723 308  
iglesiascerrajeras@yahoo.es  
**ZOBIO ORIO**

- ATEAK IRUKITZEN DITUZU
- SARRAILA - ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALKUKIEN ALDAKETA
- KOMUNITATEREPTITZAKO ZERBITZUA

**KAUJA**

TIPI-TAPA, TIPI-TAPA, KAUJARA  
BOKATA EDERRAK JATERA

Anbarko portua 35, behea  
Tf: 943 840 060



# Elkanok idatzitako dokumentuak topatu dituzte Laurgainen

Juan Sebastian **Elkanoren zortzi dokumentu ofizial** aurkitu dituzte Aian. Nabigatzaileak munduari bira eman ostean Espainiako Gorteetara eskuz idatzitako gutuna da bat.

**TESTUA: OLATZ ARTOLA**

**ARGAZKIAK: UROLA KOSTAKO HITZA, IXIDRO**

**A**ia Laurgain dorrean egin zen aurkikuntza, martxoan. Galdutzat ematen ziren zortzi dokumentu aurkitu zituzten Aiako dorreko etxe zaharrean, hautsa hartzen zeudenak.

Euskadiko artxibo historikoko kideak dorreko artxiboa garbitzen eta antolatzen ari zirela aurkitu zituzten dokumentuak. Agiriak zortzi dira. Azkenekoz Martin Fernandez de Navarretek hitz egin zuen dokumentu horiez, Vargas Ponce jakintsuak duela 200 urte Getariatik ateratako kopien harira. Ordutik, inork ez zuen dokumentuen berri, Laurgainen topatu zituzten arte.

## **Munduari bira eman osteko gutuna**

Aurkikuntzaren berri Iñigo Urkulluk eman zuen, maiatza-

ren 24an, Getariako Balentziaga Museoan, Juan Sebastian Elkanori erakusketara egindako bisita batean. Aurkitutako zortzi dokumentuen artean bereziki bat iruditu zaio garrantzitsua Urkulluri, Elkanok munduari bira eman ostean Gorteei emandako erantzuna, hain zuzen.

Gutunean nabigatzaile getariarrak, Magallanes kapitainaren gidaritzapean 1519an egindako bidaiaren 200 marinel abiatu zirela kontatzen du. Eta, hiru hilabeteren on-

“Agiriak legeztatuak izan dira. Gutun eta dokumentu originalak Getarian jarriko dira erakusgai”





doren, 200 horietatik hemezortzik besterik ez zutela lortu etxera itzultzea. Marinel ugariz gain, Magallanes kapitaina ere bidaian hil zela azaltzen du gutunean.

### Aurkikuntzaren handitasuna

Munduaren borobiltasuna aurkitu zutela ere kontatzen du Elkanok gutunean. Mendebaldetik joan zirela eta ekialdetik bueltatu zirela zioen. Nikanor Lertxundik, Elkanok egindako aurkikuntzaren harira eta esandako hitzen gaurkotasuna azpimarratuz, Getariako udalbatzar aretoan dagoen esaldia ekarri nahi izan zuen gogora: *Nondik gatozen ikertuz soilik jakin dezakegu non gauden; eta non gauden hausnartuz bakarrik jakingo dugu nora goazen.*

Bestalde, euskaldunek Elkanok egindako biran izandako protagonismoa azpimarratu nahi izan zuen Lertxundik. Ontzigintzan, espedizioaren antolakuntzan eta marinelei dago-kionean euskaldunek garrantzia handia izan zutela dio Getariako alkateak. Euskaldunok itsasoaren inguruan dugun iza- era sortzaile, antolatzaile eta ekintzailea goraiatu nahi izan du Lertxundik.

Aiako Laurgain dorrean aurkitutako agiriak legeztatuak izan dira. Gutun eta dokumentu originalak Getarian jarriko dira erakusgai, Elkanok munduari bira eman zion bostehungarren mendeurrenaren aitzakian egindako erakusketan.

### Elkanoren monumentuak planoan gelditu behar

*Amestutako Elkanoren monumentua* du izena erakusketak. Besteak beste, Elkanok munduari bira eman zioneko 400. urteurrenean antolatutako monumentu lehiaketako boze-toak eta irudiak ikus daitezke.

Miguel Martin Fernandez de la Torrek irabazi zuen lehiaketa eta hark egindako lan teknikoa –planoak eta irudiak– ikus litezke erakusketan. Finantziazio faltagatik proiektua ez zen errealitate egin.

## LAUGAIN FAMILIA NOBLEAREN DORRETXEA

**A**ntzinateko nobleak bizi izan dira Aian eta herriaren bilakaeran garrantzia handia izan dute betidanik.

Aiako auzorik handienaren izena hartzen du Laurgainek. Pagoetako zati handi bat ere hartzen du. Interes handiko hainbat eraikin daude auzoan: San Migel parroki-eliza, XVI-XVIII mendeetako; Etxetxoko santutxo barrokoa, XVIII. mendekoa; Bizkar baserria, XVIII. mendekoa, Iturraran baserria, XVIII. mendekoa; Agorregiko burdinola eta errotak, XV-XVIII mendeetakoak; eta Laurgaingo jauntxoaren dorretxea, XIV-XVIII. mendeetako.

Azken honetan aurkitu dituzte galdutzat ematen ziren zortzi dokumentuak.

Laurgaingo dorrearen jabea ez da han bizi. Kanpoan bizi da. Emakume heldua da, Anne Marie Christophe du izena eta Ipar Euskal Herrian bizi da, Biarritz inguruan. Tarteka Aiako Laurgain dorrea bisitatzen du, ekaineko lehen asteburuan, esaterako, han izan zen.



obrak  
proiektuak  
errehabilitazioak  
txostenak  
eraikuntza zerbitzuak  
ITEak  
eraikinen mantenua

arkitektura

borja agirresarobe lopetegi  
heniko-barra 6. behea  
20800 zarautz

6 3 5 7 3 1 7 2 2  
9 4 3 1 3 4 3 5 8  
xs@xsarkitektura.com

# arkaitz taberna

••• orio •••

- Ogitartekoak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta

Terraza ederrarekin  
Giro ezin hobea

**abeslari kalea 6 - 943 831 657**

# URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net  
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5



# Seguros Bilbao

Orioko ordezkaria

Santi Barranco  
Telf.: 618581398  
Artzaga, 2 - 2ª eskerria  
20810 Orio (Gipuzkoa)

e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com



# Sagasti LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tel. 943 13 00 77 - Fax. 943 53 71 50  
sagasti@sagastileihoak.com  
Arrantzale kalea, 65  
20810 ORIO (Gipuzkoa)

Orientazio eta aholkularitza-zerbitzu integrala



# Erak

943 543 231  
688 870 435

Ibaiondo 9 behea / Abeslari, 1 - Orio      erak.orio@gmail.com

75 m<sup>2</sup>ko **PISUA SALGAI**      Prezioa: 165.000 euro  
Alan, Santio Errekan kokatua      ☎ 607 510 356



Hiru logela ditu, sukalde handia, egongela eta bainugela.  
Horrez gain, komunitate-lorategia eta kanpoko aparkaleku pribatua.

Lizaso dekorazioa



**Tf:**  
943 83 07 84

**Faxa:**  
943 24 87 15

**Eusko Gudari, 48**



**Zarautz**  
Hileta Zerbitzuak

- > Hilerrien kudeaketa
- > Hileta zerbitzu orokorrak
- > Zerbitzu iraunkorra



**Harrespil**  
Hilerri Zerbitzuak



**Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxa: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net**

# Lasarte-Oriako oriotarrak Hendaiaetik II



Meltxor Artetxe

**Inoiz ez nintzen itsasontzi batean sartu. Ezintasuna eta beldurra nagusi... A ze nolako oriotarra, alajaina!**

Urtetebe pasatxo da aurreko idazlantxoak Karkarara bidali nuenetik eta, berriz idazteko gonbita luzatu didatenez, hemen natorkizue Orioko oroitzapenen kontakizunarekin: Oraingoan itsasoak nigan utzitako arrasto eta sentimendu gazi-gozoak ekarri nahi ditut oroimenetik paperera. Arrasto garrantzitsuak, bizitzan zehar zenbait erabaki hartzeko garaian eragina izan dutenak –bizilekua edo oporretako destinoak, esaterako–. Eta sentimendu gazi-gozoak diot, batzuetan itsasoarekiko maitasunezko harremanak izan nituelako, eta beste zenbaitetan ezintasunean edo beldurrean oinarritutakoak.

Seguruenik, gurasoak oriotarrak ez izateak bere eragina izan zuen itsasoarekiko lotura nigan behar bezala ez sustraitu izateko. Aita Aiakoa eta ama aizarnazabaldarra nituen. Ez ziren bereziki itsaso-zaleak, nekazari girokoak baizik; etorkizunean semeren bat itsasora lanera joateko perspektiba ere ez zitzaient atsegina... Eta, gezurra badirudi ere, txiki-txikitandik jasotzen dira gurasoengandik eragin horiek. Horrela izan zen nire kasuan behintzat.

Hala, alde batetik, ez nituen ezagutzen arrantzaleen familiak eta haien belau-naldiak, zaila egiten zitzaidan baporeen izenak beren jabeekin lotzea, baita bertan aritzen ziren marinelen izenak eta jatorriak jakitea ere. Ez nintzen izan batel eta txalupetan ibiltzeko edozein aukera baliatzen zuen horietakoa, edo noiznahi baporeen edo kaiaren marrazkiak egiten zituenetakoa, edo bainujantzia jantzi eta arranplara edo hondartzara maiz joaten ziren haur haietakoa. Ez nuen igeri egiten ikasi eta uretara gehiegi hurbiltzeak bildurdu egiten ninduen. Inoiz ez nintzen itsasontzi batean sartu. Ezintasuna eta beldurra nagusi... A zer nolako oriotarra, alajaina!

Baina bestetik, gustuko nuen itsasoaren usaina, hondartza eta bere ingurua behatzea, ibaia eta bertako korronteak, ez nintzen aspertzen arrantzan ari zirenei begira, gogoko nuen arrantza-ontzietako aktibitatea, bai itsasora abiatzekoak zirenean, baita moilara heldu berritan ere. Neure erara eta maila apalean bazen ere, itsasoa maitatzen ikasi nuen beraz, eta bizitza guztian bidelagun izan dut maitasun hori. Geroztik ezin izan naiz gehiegi aldendu itsaso ingurutik eta Hendaian saiatzen naiz, egunero, itsasoari diodan maitasuna ixurtzen. Ezin zitekeen bestela, oriotarra izanik...



Miriam Garcia Etxeberria

## Akabatu ez gaitzaten

ergatik zara heterosexuala? Galdetzen diote askotan. Deabruak sortu zaitu, esaten diote sarri mespretxuz. Gaixotasun bat ere ba ote duen diote txutxumutxuek. Bere sexuak ez diren pertsonen erakartzen dutela da arazo bakarra.

Absurdoa dirudi, ezta? Are absurdoagoa da munduan gertatzen ari dena.

Artikulu hau idazten hasi nintzen oraindik ez zen Orlandoko sarraskia gertatu. LGTB kolektiboa ikustarazi eta aldarrikatzea zen hitz hauen helburua. Zentzu handiagoa hartu dute orain.

Orlandon gertatutakoa ez da izan jihadismoaren ondorio, edo ez hori bakarrik, behintzat. Heteropatriarkatuaren ondorio izan da.

Askok ez dute kontzeptua ezagutuko, beste askori pereza emango die, baina heteropatriarkatua ez da urruneko gauza bat, munduko gizarte, erlijio eta herrialde guztien oinarrian dagoen gaitza baizik.

Gizonezko –txuri– eta heterosexual ez den edonor azpitik jartzen du heteropatriarkatua. Gizonezko asko beren bikotekideak hiltzera eramaten ditu. Pertsona asko beren sexu orientazioagatik irainduak eta mesprextatuak izatea ekartzen du.

Ekainaren 28a sexu aniztasunaren eguna da, aldarrikapen eguna, kalera irten eta arautik at gaudela ozen esateko eguna, aniztasunari ateak irekitzeko eguna eta, aurten, inoiz baino gehiago, desberdinak izateagatik jasotako indarkeriari aurre egiteko eguna.

Ez dugulako hilketa, kolpe, irain eta mesprextu gehiagorik nahi.

# “Beldur handiagoa ematen digu Orion gelditzeak kanpora joateak baino”

## Shua Larrañaga eta Iñaki Verhegge

Nepalen dagoen bikote oriotarra

2016an sartu orduko hasi zen Iñaki bidaiatzen. Shuak arra ere piztua zuen, eta hilabete igaro orduko heldu zion berak ere bikoteki-deak hasitako bideari. Munbain elkartu ziren. Indiatik Nepalerako bidaia egin dute, eta orain Banua izeneko herri txiki batean daude, boluntario lanetan. Biharko egunean nora? Ikusiko da.

### TESTUA: O.ARTOLA APEZTEGIA

### ARGAZKIAK: IÑAKI VERHEGGE ETA SHUA LARRAÑAGA

Motxila bizipenez betetzen dute bidaiatzen duten aldiro. Bidaiatzean bizitakoak munduari beste begi batzuekin begiratzeko balio die. Azkeneko motxila Pakistanera joateko asmotan jantzi zuen Iñakik, Shuarekin Islamabaden elkartzeko intentzioarekin. Planak aldatu eta Munbain egin zuten topo.

#### Lehen geltokia: Mumbai.

**Iñaki Verhegge:** Urtarrilean hasi nintzen bidaiatzen, baka-rrik. Hasierako asmoa Pakistanera lurrez iristea zen, eta han, Shua eta biok elkartzea, Islamabaden.

**Shua Larrañaga:** Azkenean, otsailean joatea erabaki nuen, aurreikusi baino lehen; beraz, berak Istanbuletik hegazkina hartu eta Munbain elkartzea erabaki genuen.

**Verhegge:** Istanbulera arteko bidea, Bla Bla Car erabilia egin nuen.

#### Ia urtebetez bidaiatzeko erabakia aurretiaz asko pentsatu ondoren hartu al zenuten?

**Verhegge:** Urte bete lehenago hartu nuen erabakia eta lantokian urte sabatikoa eskatu nuen.

**Larrañaga:** Nik, badaezpada, dirua aurreztu nuen, baina bi hilabete lehenago erabaki nuen bidaiatzea. Askok bidaiatu dugu aurretik, beraz, ez genuen bi aldiz pentsatu. Behin bidaiatzen hasita gorputzak eskatzen dizu kanpora irtetea, mundua ezagutzea.

#### Bidaiatzen eskarmentu handia duzue...

**Verhegge:** 18 urterekin hasi nintzen bidaiatzen, Australiara egin nuen lehen bidai hura. Ondoren Laosen eta Tailandian ere izan naiz, eta lanagatik ere –atzerriko erreminten mantentimenduan egiten du lan– munduko txoko asko ezagutu ditut: Txina, Kolonbia, Europa ia guztia...

**Larrañaga:** Eta nik lehen bidaia 19 urterekin egin nuen. Edinburgon izan nintzen urte betez. Orditik bi urte pasa ditut Mexikon, Nikaraguan, Hondurasen, El Salvadorren





eta Guatemalan, besteak beste.

**Ezezaguna den tokiak ezagutzeko beldurrik ez duzue...**

**Larrañaga:** Ez dugu beldurrik, ez. Egia esan, sarritan, beldur handiagoa ematen digu Orion gelditzeak kanpora joateak baino.

Gure beldurra, agian, bikote gisa bidaiatzea izan da. Bakarrik bidaiatu izan dugu, oso independenteak gara, eta horrek ematen zigun beldur handiena.

**Bidaiatzeak elkarbizitza ordu asko dakartzalako?**

**Verhegge:** Hori da. 24 ordu elkarrekin gaude. Momentu onetan eta txarretan. Buruhaustek, aspertuta zauden uneak... baina, tira, komunikazioarekin eta umore onarekin guztia ongi ateratzen da!

**Beldurrak beldur, kanpora joateko gogoa piztu zizuen amets edo helbururen bat ba al zenuten?**

**Larrañaga:** Helburu eta ametsik ez izatea iruditzen zaigu onena. Bidaiak berak harritu egiten zaitu, beraz, zertarako amestu? Amets askorekin etorri z gero akaso dezepzionatu egiten zaitu ezagutzen duzunak.

50 urteko frantziar bat ezagutu genuen Dalai Lama bizi den herrian. 20 urte zeramatzan bidaiatzen eta berak esan zigun: *present is a present* [oraina opari bat a] Iñakik eta biok, orain, lelo hori jarraitzen dugu. Momentua, datorren moduan datorrela, ahalik eta gehien disfrutatzen ahalegintzen gara. Batzuetan hobeto egongo zara eta beste batzuetan okerrago, baina gaizki egonez gero: *new place, new feelings!* [leku berria, sentipen berriak]

“Lekua jendeak egiten duela iruditzen zaigu. Beti ahalegintzen gara jendearekin hitz egiten”



### **Munbain elkartu zineten. Espero bezalakoa al da India?**

**Larrañaga:** Oso gogorra egin zaigu. Bero handia egiten du, 45 gradu inguru. Gaixorik egon gara: gastroenteritisa, gripea eta lipotimiak izan ditugu. Errabiaren kontrako bost bakuna hartu behar izan ditugu, tximinoek erasotu egiten zigutelako. Ez da erraza izan.

### **Eta Indiatik, nora? Ibilbide zehatzik ba al zenuten?**

**Verhegge:** Ez genuen ezer planeatuta. Leku berri bat ezagutu nahi genuen, besterik ez. Kasualitatez indiar baten lagunak egin ginen eta hark egin zigun ibilbidea. Pentsa zer inprobisatua izan zen, Indiako bisa ere korrika eta presaka egin behar izan genuela.

**Larrañaga:** Iñakik azkenean Budapesten egin behar izan zuen bisa eta nik hemen, pentsa!

### **Antza, ez zaizue guztia lotuta eramatea gustatzen...**

**Larrañaga:** Ez zaigu Lonely Planet bidaia-gida ibiltzea ere gustatzen. Jendeak ezagutu eta jendeak esaten digunaren arabera egiten dugu bidean aurrera!

### **Garrantzia handia ematen diozue bertako jendea ezagutzeari, ezta?**

**Larrañaga:** Lekua jendeak egiten duela iruditzen zaigu. Beti ahalegintzen gara jendearekin hitz egiten. Niri, esaterako, asko gustatzen zait bertako emakumeekin hitz egitea, oso pentsakera ezberdina baitaukate. Eta Iñakik mundu guztiarekin hitz egiten du! Izugarritzko abiltzadea dauka jendearekin erlazionatzeko; giro ona izatea lortzen du guztiekin, gainera!

### **Nola joan zarete batetik bestera?**

**Larrañaga:** Indian autobusa eta trena erabili ditugu, baina ez turistenak, herritarrenak baizik. Nepalera ere garraio publikoan joan gara eta orain Laosen, Thailandian eta Cambodian motoz bidaia nahi dugu. Helburua Filipinetara iristea da.

### **Distantziak hemen baino handiagoak al dira? Urruti eta gertu kontzeptuen esanahiak desberdinak al dira han?**

**Verhegge:** India kontinente baten tankerakoa da. Motxila hartzen duzun bakoitzean badakizu 20 orduko bidaia egingo duzula. Distantziak handiak dira, baina ohitu egiten zara! Laster hasiko dugun hirugarren etapa hori horregatik egin nahi dugu motoz, distantziak eta bidaia guk erabakitzeke eta leku turistikoetatik alde egiteko; bertako jendearekin ahalik eta harreman gehien izateko!

### **Garraio publikoa erabili duzue. Eta lo, non egiten duzue?**

**Verhegge:** Hostaletan egiten dugu lo, oso-oso merkeak direlako. 2-3 eurotan biok egiten dugu lo. Hori bai, edozerekin egin dezakezu topo, Indian batez ere. Nepal garbiagoa da eta ur beroa ere badaukazu. Baina orain, motoarekin, kanpin denda bat eraman nahi dugu, badaezpada.

### **Eta, orain arte ikusitakotik, zerk harritu zaituzte gehien?**

**Verhegge:** Indiako kontrasteak harritu nau gehien: koloreak, usainak, zikinkeria...

### **Orain Nepalen zaudete...**

**Larrañaga:** Indiako bisa bukatu egiten zitzaigun. Rishikeshen, Indian, bikote bat ezagutu genuen, eta horiek *Living*



*Nepal* izeneko OKE Katalan batez hitz egin ziguna. Berekin jarri ginen harremanetan eta berehala erantzun ziguten. Erantzuna jaso eta hiru egunetara Nepalera abiatu ginen.

Katmandun lau egun igaro genituen, *Social camp*a antolatzen. Komunitateko emakumeekin, haurrekin eta irakasleekin lanean aritu ginen. Ikastaroak egin genituen, jokoak... Hori OKEaren zati bat da. Beste zatia eraikuntzarekin dago lotuta. Eta orain horretan ari gara, eskola eraikitzen.

#### **Nolako da orain zaudeten komunitatea?**

**Verhegge:** 500 pertsona bizi dira, horietatik 40 haurrak. Aurreko urtean lurrikara izan zen eta ezer gabe gelditu ziren. Gobernuak utzitako diru apurrarekin txapazko etxeak eta txabolak egin dituzte bizitzeko. Ume zaharrenek txapazko etxe batean izaten dituzte eskolak, baina txikienek kanpin denda batekin konformatu beharra daukate. Orain montzoia dator eta hotz handia egingo du. Horregatik eraiki dugu eskola txiki bat.

#### **Zein da bakoitzaren funtzioa OKEan?**

**Verhegge:** Ni eraikuntzan aritzen naiz.

**Larrañaga:** Nik, goizetan, jardinean egiten dut lan. Harriak mugitu behar izaten ditut, lurrikararekin eskola guztia behera joan baitzen. Arratsaldeetan 3-6 urte bitarteko haurrekin egoten naiz. Zoragarriak dira guztiak!

#### **Seismoak gogor jo zituen nepaldarrak, ezta?**

**Verhegge:** 9.000 pertsona inguru hil ziren. Guztia suntsituta gelditu zen, lurrikararen ondoren lur-jauzi ugari ere izan baitziren. Oso arriskutsua izan zen. Hemengo jendeak ez du horretaz hitz egiten. Beldurra dutela ohartzen zara...

**Larrañaga:** Atzerritar asko ezagutu ditugu seismoan izan zirenak. Inkomunikatuta egon ziren eta une oso gogorrak izan zirela diote.

#### **Horrelako pasadizoak entzunda, ez zarete beldurtzen?**

**Verhegge:** Beldurra ez dugu sentitzen, baina errespetua bai. Horrelakoetan ohartzen zara lurrak duen indarrak. Shuak bi lurrikara handi izan zituen Mexikon eta, ondorioz, beldur pittin bat gehiago zuen, baina beldurrarekin ezin da bizi, ez baituzu disfrutatzen.

#### **Hemendik ere hango komunitateari laguntzeko aukera baldago?**

**Verhegge:** Bai, noski. Bi modutara lagundu daiteke. Batetik, laguntza ekonomikoa eman daiteke. Horretarako beren webgunean sartu zaitezke, [livingnnpal.org](http://livingnnpal.org). Bestalde, hona etortzeko aukera ere badago, eta horren gaineko informazioa ere webgunean aurki dezakegu. Hemen, lehen esan bezala, bi esparrutan lagundu daiteke: berreraikuntzan eta laguntza sozialean. Bereziki ingeleseko irakasleen beharra daukate. Eta, zin dagizuet, esperientziak merezi duela. OKEko eta komunitateko jendea izugarritzkoa da!

#### **Lehen kontrasteak harritu zaituztetela esan duzue; gehien gustatzen zaizuen jendearekin duzuen harremana dela ere esan duzue... Eta gutxien?**

**Larrañaga:** Kasta sistema. Beraiek maila ekonomiko baxue-na dutenez, sistematik alboratzen dituzte.

#### **Jendea azpimarratu duzue behin eta berriz. Jende horrek bizitza bizitzeko modua ere zeharo desberdina izango du...**

**Verhegge:** Momentua bizitzen dute, ez dute presarik. Ez





“Zailena, bueltatzean bizimolde horri eustea da. Azkenean, mendebaldeko munduak pixkanaka jan egiten zaitu”

lanera joateko, ez jateko, ez lagun artean egoteko... Askoz ere gauza gutxiago daukate, baina beren bizi kalitatea hobea da. Ez dituzte guk bezainbeste gauza behar pozik bizitzeko. Beren arteko harremanak ere puroagoak dira... Eta, uste dut bidaiari guztioi kutsatzen zaigula bizimolde hori. Gero, zailena, bueltatzean horri eustea da. Azkenean mendebaldeko munduak pixkanaka-pixkanaka jan egiten zaitu...

**Mendebaldarrak artifizialagoak garelako esango zenukete?**

**Verhegge:** Bi munduek dauzkate alde onak eta txarrak. Baina, gure iritziz, mendebaldeko munduko ohiturak-eta mundu osora ari dira zabaltzen, pixkanaka: ezin asetu hori, beti zerbait gehiagoren beharra izatea, presaka bizitzea, ingurumenean ez pentsatzea, kontsumismoa... Bai, artifizialagoa iruditzen zaigu! Nola bizitzeko modua, hala harremanak izateko modua ere.

**Eta ez zarete frustratzen hona itzuli eta kanpoan zaudenean kritikatzan dituzun jarrera horietatik gertu ikusten duzue-nean zeuen burua?**

**Verhegge:** Bai, beti. Bana, finean, sistema honetan bizi gara eta gustatzen zaigu Orion bizitzea; beraz, geure buruak kritikatzan hastea alferrik da. Azkenean bizitzak eraman behar zaituen bidetik eramango zaitu lehenago ala beranduago.

**Zuei zein zentzutan aldatu zaituzte?**

**Verhegge:** Lekuak baino gehiago jendeak aldatzen zaitu. Betiko errealitate global horretatik atera eta bestelako errealitateak ikusteak sekula pentsatuko ez zenukeen gauzetan pentsatzera eramaten zaitu. Zure erosotasun egoeratik ateratzean, gauza gehiago ikusten dituzu eta buruak ere gauza gehiagotan pentsatzen du.

Bidaiak daukaguna eta bizi garen herria gehiago baloratzen erakutsi digu. Beste alde batetik, egiten ditugun akatsez konturatzeko ere balio izan digu.

**Helburua Filipinetara iristea da. Eta handik, etxera, Oriora? Noiz bueltatzeko asmoa daukazue?**

**Larrañaga:** Itzulerako data abenduaren 1a da, baina hori ez da sekula jakiten; hori bidaiak berak esango digu.

**Halabeharrez itzuliko zarete ala baduzue etxera etortzeko gogorik?**

**Larrañaga:** Gogoia momentu askotan izaten dugu. Gaur egun Facebookarekin uneoro duzu lagun berri, oso gertu gaude guztiok. Beti ematen du inbidia pixka bat lagun arteko afariren bateko argazkiren bat edo ikusten baduzu sare sozialetan. Azkenean familia, lagunak, janaria... faltan sumatzen dira.

**Verhegge:** Oraintxe gustura jango genuke txuleta eder bat, piper gorriekin eta ardo on batekin! -barreak-. Batzuetan teletransportatuko ginatke, baina dena ezin da... Oraintxe bizitzen ari garena ahalik eta gehien disfrutatzen saiatuko gara, eta hor gaudenean hangoarekin pozik bizitzen! Momentuan momentukoa!

**Larrañaga:** Lehen esan bezala, *present is a present*.

Momentua opari bat da! Eguna pasa ahala, egunero egun bat gehiago edo egun bat gutxiago izango da, ikusi nahi duzun moduari araberakoa da. *Always look at the bright side of life* [bizitzaren alderdi onari begiratu beti] -barreak-.

emakume arropa - neurri bereziak  
kinkiladenda - barruko arropa



50eko deskontua familia eguneko tartelarentan

Eusko Gudari, 9 - Orio  
943 134 889 [argine/jantziak](mailto:argine/jantziak)



**ARISTERRAZU**  
jateetxea

Andatza auzoa AIA  
Tel. 943 83 45 21



Hemengo haragia.  
Etxeko produktuak: tripa, odolki, bekerra, txorizo, krokotak...

**PATXI OLIDEN**

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10



**ELEKTRIZITATEA**  
- Ander Expósito

943 831 774  
600 856 728

[anderexpoeletrizitatea@gmail.com](mailto:anderexpoeletrizitatea@gmail.com)

**Gabon**  
TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitartekoak

943 83 06 09

*Garbine Arregi*

Moda eta osagarriak

Herrera plaza, 5  
635 706 263

*paupantekin goizez zabalki!*



**GARMENDIA**

HIGIEZIN AGENTZIA - ANOLKILARITZA - ASEGURUAK

Ibai Ondo, 1  
Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941  
[informacion@garmendiageston.com](mailto:informacion@garmendiageston.com)

**HAIZE BERRI**  
faherria-jateetxea-kafetegia

Plater konbinatuak, bokalok, hamburgesak, rasiok, eguneko menua...

ostiralean pintxo pote!


eta etxera eramateko zerbitzua!

943 831 623

Orioko Kroledegian, Erribera 1

tel/fax: 943 89 00 69

Bikaa kalea, 4. 20.000 ZARAUTZ



ITURGINTZA\_BEROGINTZA  
GASA\_BAINU ERAKUSKETA

Prespektibak, baparrak, jate

*edertutegia*

**ANTILLA**  
*jateetxea*

Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 00

**ITZALA**

kartela jokatzeko aproposa

tel. 943 83 12 59



**ENOBETA TXIKI S.L**  
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak - beira bikoitza
- segurtasun beirak - dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak - barandak - kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

**ITZIAR**  
kirolak

Tel. 943 83 31 03



Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04  
FAX: 943 13 09 38

[orio@ikastola.net](mailto:orio@ikastola.net)

[www.oriokoikastola.net](http://www.oriokoikastola.net)



**AIRDATZA modas**

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

**KAXAIO**  
PLADURRA ETA ESKAIOLA

Konponketa eta berrikuntza lanak pladurra eta eskaiolarekin

[4josemaria@gmail.com](mailto:4josemaria@gmail.com)

656 777 574

**TAILER MEKANIKOA AUTO LAN**



Pelotari 5, Orio  
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko Gertuko Tailerra

# Urteko egunik luzeena, San Joan bezpera

**U**rteko egunik luzeena. Udako solstizioa. Sua. Sorginak. Akelarrea. Bai, San Joan bezperaz ari naiz bai. Ekainean, argiaren hilabetea, 23an ospatzen da herri askotan, baita gurean ere. Eguzkiaren aroaren etorrera ospatzen da. Urteko egunik luzeena eguzkiari eskaintzen zaio eta suak eguzkiaren ikurra bihurtuz gaua argitzen du, gau magikoa izanez.

Berezia izaten da bai, gau hau. Eta zer esanik ez suaren inguruan biltzen garen dantzariontzat. Txikitan, dantzari *handiekin* dantza egiteak ilusio berezia egiten zuen. San Joan bezperako akelarrea izaten zen, Harribil dantza taldeko dantzariekin izaten genuen lehen kontaktua. Adin desberdinetako jendea elkartu eta herriko kaleetan zehar ibili ondoren, suaren inguruan bilduz. Eta oraindik ere, bertan jarraitzen dugu, suaren txinparta itzal ez dadin. Hala ere, pixkanaka, txinparta indarra galduz joan da. Geroz eta jende gutxiago animatzen da bertan parte hartzera. Ikusleak bai, normalean ikusle fidelak eduki izan ditugu urtero, baina parte-hartzea gutxituz joan da urteetan zehar. Pena da, jendearen ilusio falta hori gainontzekoengana transmititzen delako. Antolatzaileentzat txinpartaren indarra mantentzea geroz eta nekezago egiten den arren, ea denon artean lortzen dugun.



Mireia Atorrasagasti

**“San Joan bezperako akelarrea izaten zen Harribileko dantzariekin izaten genuen lehen kontaktua”**



Estela Atorrasagasti

**“Ilusioz beterik joaten nintzen ahizpa zaharra sorginez jantzita ikustera”**

**B**erezia da bai gau hau. Urteko egunik luzeena, gaurik motzena. Txiki-txikitatik oporretako lehen *parranda* izaten zen askorentzat. Gauraz afaldu eta izozki bat jenez sorginak ikustera ateratzetik, dantza egin ondoren Hernaniko festetara joatea.

Ilusioz beterik joaten nintzen ahizpa zaharrari sorginez jantzita ikustera, eta deseaten egoten nintzen noiz iritsi LH 2. Mailara, San Joanak ahizpa eta gainontzeko sorginekin ospatzeko. Harribileko dantzariekin dantza egitea beti izaten zen berezia. Horrela hasi ginen ahizpa eta biok Harribilen parte izateari. 8 bat urtetatik San Joanak beraiekin ospatuz, eta geroago taldeko kide izaten, gaur arte. Desberdin bizitzen da gau hau urteak pasa ahala. Baina adin desberdinetako jendea, lagunak eta familia suaren inguruan dantzan elkartzea beti da berezia. Ordea, ahizpak ondo azaldu duen moduan, ilusio hau itzaltzen doalakoan gaude. Sentsazioa daukagu, geroz eta gehiago kostatzen dela herri honetan parte hartzea. Beti izaten da errazena beste norbaitek egin eta antolatzea. Baina askotan erantzuna ez da guztiz ona izaten. Haurrek geroz eta ekintza gehiago dituzte aukeratzeko eta dantza ez da izaten orokorrean aukeratuena, edo ez behintzat lehentasun gehiena duena. Pena da, geroz eta jende gutxiagoren artean moldatu behar izaten delako. Ea beraz, denon artea sua mantentzeko gai izaten garen, ez ordea soilik San Joan bezperako iluntzekoa, baizik eta urte guztian zehar herrian antolatzen diren gainontzeko ekintzena ere.



Anibarko Portuko festetan dantzaldia egin zuten . BEGOÑA RUIFERNANDEZ

## Egun bateko festa izatetik bi eguneko jaia izatera

Aurten ostiralean, ekainaren 17an, hasi ziren Anibarko Portuko festak. 19:00etan izan zen txupinazoa. Ondoren kalejira egin zuten Gari eta Iñaki trikitalariekin. Ordu betera, 20:00etan, kalejira trikipoteo bilakatu zen. Larunbatean goizen goizetik iluntzera arteko festa izan zen Anibarko Portuan.





## Denboraleak itsasoan olatu aleak

Zortzigarrenez antolatuko da mus txapelketa. Lau sari banatu ziren, eta potoloena, irabazleena, Iñigo Alkortak eta Mikel Kaperotxipik eskuratu zuten. Txapela, bi taila eta 500 euro lortu zituen bikoteak.

**KOLON TXIKI**  
 unartekugia  
 jostaketa



Herriko Enparantza, 4  
**ORIO**  
 Tel. 943 83 00 44

Ille apaindegia  
**MARIJO**



Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - behea  
 Tel. 943 13 47 29  
**ORIO**

BODEGAS  
*Gailur*

2080 BARRIOA 4. EBED  
 Tel./Fax 943 83 21 38  
 www.bodegasgailur.com

Arabar Errusia

**zku**



Tf: 943 130 438

**zku**

**Alustiza Autobusak**  
*Alustiza Bidalak S.L.*



Autobus litera eta  
 16, 19, 25 eta 56 plazakoak.  
 Bidalatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93/ 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01/ 656 78 29 99

**2GURPIL**



Baxoalde 2 - 3 - 20810 Orio (Gipuzkoa)

Tf: 943 835 980 | www.2gurpil.com | bigurpil@hotmail.com

**ZUDUGARAI**



Gabariako Tzestolina

Tel. 943 83 03 80  
 Fax 943 83 00 50  
 tudugaraiz@oriotel.net  
 www.tudugaraiz.net

**Carmen eta Txomin**  
 ARRANDEGIAK



943 83 05 37 / 943 83 27 47

**MENDIZABAL**  
**ARROZTEGIA**  
 Naurriko arnairak  
 eta egerlarak

943 831 175 Altxami bidea  
 645 708 491 Berr-Aloj etxea  
 mendiaroztegi.net 20810 Aia-Orio

Joana Murgiondo  
 Aseguru-ageritza

**ASEGURUAK**

CCCI

CARABA, CIVIETI, LACORT Y CIA, S.A.

Abeslari, 4- 2. esk.  
 Tfnoa: 943 13 46 07

**OREKA**  
**FISIOTERAPIA**

Tendinitisak  
 Lumbalgia  
 Artrosia  
 Zefaleak

Masaje terapeutikoa,  
 bentonak, akupuntura,  
 eskuzko terapia,  
 osteopatia

**943 13 35 37**  
 Arizaga kalea, 11 behea

HAUR ETA HELPUENTZAKO JANTZIAK

**ROSA**

GARBIÑE ARRILLAGA  
 ARITZAGA KALEA, 2 - TEL. 943 13 19 43  
 www.facebook.com/ROSAORIO

BIDAZ DESKONTUUA FAMILIA UKARIENTZAT

**URAITZ**  
*Arriindegia*  
 jantzi-eragariak

Endrika 3 Tfnoa: 943 83 18 97

**ASADOR**  
**XIXARIO**

Eusko Gudariaren Kalea, 2  
 Tel. 943 83 00 59 - ORIO

**Zaragueta**  
 Herri Eskola **ORIO**

telefonoa: 943 89 40 52  
 e-mail: 012137aa@hezuntza.net

**karkara**.eus

**Eskaintza**  
**berria**  
**Eskaria**

**J. MAIZA AROZTEGIA**  
**LEIHO ISOLATZAILEAK**  
 (PVC)

- \* INSTALAZIO OSOA
- \* OSZILOBATIENEA
- \* ALUMINIOZKO PERTSIANA
- \* BARRUKO ETA KANPOKO BUKAERA
- \* BEIRA BIKOITZA ETA ISOLATZAILEA 4-16-4

		
420€	530€	630€

**TEL. 690 99 39 32**  
**943 30 07 88**

Antxiola, 19 - 1.C Orio  
[www.carpinteriamaiza.com](http://www.carpinteriamaiza.com)  
[info@carpinteriamaiza.com](mailto:info@carpinteriamaiza.com)

ALUMINIOAN ERE  
 AURREKONTUA  
 KONPROMISORIK GABE



KARKARA

# “Birziklapena bultzatzeaz gain, berrerabilpena ere sustatzen dugu”

## **Kepa Egurbide Landa**

Garbiguneko langilea

Sei urte daramatza Aiako eta Orioko garbigunean lanean. Beti dago zer hobetu, eta garbiguneko zerbitzuak hobekuntzak izan ditzakeen arren, herritarren eskura baliabide ugari jartzen dituztela dio, aprobetxatu beharrekoak.

### **O. ARTOLA APEZTEGIA**

Zarauzko garbigunean ordezkapenak egiten aritu zen, eta orain Orioko eta Aiako garbigunea du lantoki. Ingurumenarekiko kontzientzia guztiz barneratua dauka, baina azkenaldian herrian ikusitako egoerak herritarrek ingurumenarekiko duten kontzientzia galdetzerara eraman gaitu.

#### **Garbiguneko zerbitzua nori dago zuzendua?**

Partikularrei eta eraikuntzako gremio txikiei. Ez dago soilik Aiako eta Orioko herritarrei zuzenduta, Urola Kostako Udal Elkarte osatzen duten udalerrri guztietan ematen dugu zerbitzua. Gertutasunagatik, Aiakoak eta Oriokoak etortzen dira hona; baina beste herrietakoak etorri daitezkeen moduan, hemengoak ere joan daitezke beste herrietara. Bost herri hauetakoren batean lanean ari direnek ere hemen bota ditzakete hondakinak.

#### **Hondakinak aipatu duzu, zer hondakinez ari zara?**

Etxeko hondakin ia-ia guztiak jasotzen ditugu. Baina, zehatz-meatz zer jasotzen dugun jakin nahi izanez gero Urola Kostako Udal Elkarteko webgunean aurkituko duzu informazio hori, ingurumena-garbigunea atalean.

#### **Jasotzen duzuen guztia birziklatu egiten duzue?**

Guztia, hiri hondakin inerteak salbu.

#### **Sailkapena herritarrak egin behar al du?**

Izatez, bai, baina gu zerbitzua emateko gaude, laguntzeko. Hortaz, hona etortzen denari sailkapena egiten laguntzen

diogu. Gainera, sarritan duda izaten dute herritarrek. Eta, dudaren aurrean birziklatzen den materialarekin gordetzea da egokiena, ondoren sailkapen zehatzagoa egiterakoan bananduko baitute. Baina, dena den, dudaren aurrean hobere-na hona ekartzea eta galdetzea da. Hemen jasotzen ez badugu ere, non jaso daitezkeen esaten ahalegintzen gara.

#### **Jende askok erabiltzen al du zerbitzua?**

Jendea interesatzen da, bai. Baina batzuk, ezjakintasunagatik ez dira etortzen eta beste batzuk, fede txarragatik, ez dute ongi jokutzen. Erosotasunera jotzen dugu sarri, eta...

#### **Eta Orion gertatu dena, hondakinak utzi behar ez direnean uzten dituztela...**

Denok egiten dugu noiz edo noiz bekatua... Baina tira, Orion hileko bigarren eta laugarren asteazketan eta Aian ostegunetan biltzen dira bolumen handikoak.

#### **Nola sailhestu daitezke horrelako jarrerak?**

Nire ustetan erakundeek beti aurretik egon behar dute, erraztasunak eman behar dituzte, horrelako zerbitzuak eskura jarri. Herritarrak informatu egin behar dira, jakinaren gainean egon behar dute. Gero, zerbitzua aprobetxatzen duten ala ez...

#### **Gauzak jasotzeaz gain, eman ere egiten dituzue, ezta?**

Hemendik gauzak ere hartu daitezke. Birziklapena bultzatzeaz gain berrerabilpena ere sustatzen dugu.



## Lehen mailara!

Eskubaloia sasoi onean dago Orion: zilarrezko ligari eustea lortu dute Orioko jokalariek dituen Amenabar-Zarautz taldeak, Mikel Amilibiari Espainiako Junior selekzioetik deitu diote, Orioko Ikastolako neskek denboraldi biribila egin dute eta, ginga jartzeko, Jon Azkueren Bidasoa taldeak lehen mailarako igoera lortu du. Datorren urtean Bidasoan jarraituko duela baieztatu du Azkuek.



“Ertzainak baserriz baserri zebiltzan, lapurtzeko zer zegoen begira. Izebak nik bilatutakoaren berri eman zion eta hori bonba bat zela erantzun zion ertzainak. Lehertu gabeko bonba zen”

**Iban Aldalur**, ostalaria, Euskadi Irratiko Mezularia saioan, ekainaren 5ean.

“Ni ibai honen -Oria- ondoan jaio nintzen eta bizi ere bai. Aro makur bat pasa genuen pozoindu zutenean, nik oso garden eta eder zen garaian ezagutu bainuen. Pena ematen zuen zikinkeria guzti hark, eta horrela atera zitzaidan kantu hori egitea -Oria ibaia-”

**Benito Lertxundik**, Tolosaldeko Atarian, ekainaren 4an.

**Ubegun industrialdea, 7**  
**20809 Aia-Orio**  
**Tf/fax: 943 83 51 86**  
**carroceriasazkue@hotmail.com**

**Hilarriak eta marmolak**  
**Azpiroz S.L.**  
 San Esteban auzoa, 18 (Gilegasti baserria) Usurbil

**Orioko eta Aiako**  
 hilerietarako zerbitzua

- Hilarriak eta parteeiak
- Harriak inskripzioak
- Parteeietan marritze eta garbiketa lanak
- Argazki zeramikak

**627467216**  
 marmolesazpiroz@hotmail.com  
<http://marmolesazpiroz.wordpress.com>

**Ubegun industriagune, 4**  
**Tel. 943 894 024**  
**Fax. 943 130 144**  
**20809 AIA - ORIO**



# Woodstock eta Mutiozabal



Iñigo Gaiton

**Instrumentuei beldurra galduta, lagunak eta musika elkartzearen plazera. Esentziak hor behar du, nonbait. Ederra gaua!**

Urriaren beste aldeko kontu pare batez, bizi-bizi. Otsailean zabaldu zituen ateak Woodstock musika akademiak. Danbolin Musika Eskolaren jardun bikainaren alternatiba gisa, instrumentu ezberdinak jotzen ikasteko beste metodo bat eskaintzen dute: kitarra, baxua, bateria, ... Ez noa gehiago esatera. Gurutzatu zubia, jo atea eta galdetu. Irribarre batekin hartuko zaituzte.

Batzuk jada gozatu dugu Woodstock-eko lehen uztaz. Hilarren 11ean akademiako ikasleek –eta irakasleek– kontzertu berezia eskaini zuten Etxeluzen. Dozena erditik gora lagunentzat, oholtza zapaltzen zuten lehen aldia izan zen: baxuaren lau soka lodiak gogoz igurtzi eta Neil Young-en bajista banintz bezala sentituz, urduritasunak ia gaixotu arren baketak fin eta naturaltasunez astinduz, edo 80.hamarkadako frontman punkien paperean sartuta, gozamina borborka. Instrumentuei beldurra galduta, lagunak eta musika elkartzearen plazera. Esentziak hor behar du, nonbait. Ederra gaua!

Mutiozabal. Ignorante hutsa naizenez, ez noa inori lezioak ematen hastera. Ordea, agintariok, entzun arren. Ontziolan

edozein obra egiten hasi aurretik, bildu gaian aditu direnekin. Galdetu Orioko historiak dakitenei, hitz egin hezkuntza alorreko jendearrekin, landu zentroak izan dezakeen proiektio turistikoa. Ahaztu alderdikeriak eta ez beldurrik izan proposamen berriei. Herrian badugu funtzionatu ez duen interpretazio zentro bat, zer egin behar ez den jakiteko primeran balio diguna.

Mutiozabal berrituak funtzionatuko badu, xede-talde ezberdinei zuzenduriko programa dinamikoa eskaintzen delako izango da: Orioko eta Euskal Herriko eskoletako haurrak, adin guztietako oriotarrak, erromesak, herrira egun pasa datozen *domingeroak*, ekitaldi edo jarduera ezberdinak proposatzen dituzten ekimenekin kolaborazioak –Surfilm-festibal eta Albaolarena, kasu–...

Sinetsita nago guk uste duguna baino jende gehiagoren interesa pizteko potentziala dagoela errioz bazter horretan. Ea herriari freskotasan pixka bat emango dion zerbait egiten asmatzen dugun.

Woodstock eta Mutiozabal aldera begira, ariyo denoi moi-la bazterretik. Plazer hutsa izan da!



FISIOTERAPIA  
IKERKETA

**LESIOAK:** BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAINTIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTASUNAK HAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

**TRATAMENDUAK:** TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOA, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPIING-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOA (GAH)

IBAI ONDO 1, BEHE-OINA WWW.SINERGIA-WEB.COM  
TF.: 943 130 577 685 718 595



# Orioko Curriculumaren lehen fruituak

Bost urteko sortze prozesua iaz amaitu eta, 2015-2016 ikasturtean, **lehen aldiz aplikatu dute Orioko Curriculum**a Zaraguetan eta Ikastolan. Hainbat proiektu egin dituzte bi eskoletan.

**TESTUA: M. GARCIA ETXEBERRIA**

**ARGAZKIAK: IKASTOLA ETA ZARAGUETA**

**2**010ean hasi zuen ibilbidea Orioko Curriculum Sortzen taldeak, Orioren izaera garatzeko herritik sortutako curriculum baten beharra ikusita. 2013an ijitoen akordioa sinatuz herriaren izaera bilduko zuen proiektu pedagogikoa osatzeko konpromisoa hartu zuen taldeak. Era berean, herriko hezkuntza eragileek Orioko Curriculum aplikatzeko ardura hartu zuten. Dokumentazio lan luze baten ondoren, 2014an behin behineko curriculum prest zuten.

Orioko Curriculum bezalako dokumentu pedagogiko batean herriko ikastetxeak parte garrantzitsu dira, azken finean, haien esku geratu da curriculumaren erabilera. Horregatik, behin behineko izatetik behin betiko izaterako bide ho-

rretan ekarpenak egin zituzten Ikastolak eta Zaraguetak.

2015eko ekainean aurkeztu zuten Orioko Curriculum, dokumentu definitiboa, eta sarean jarri zuten. Ziklo bat amaitu zen, sortzeko zikloa, eta egindako lan guztia martxan jartzeko garaia iritsi zen.

## **Lehen aldiz, eskoletan**

Herri izaera transmititzeko gune bihurtu dira ikastetxeak eta, lan horren garrantziaz jabeturik, Orioko Curriculum eskaintako ibilbidean parte-hartzearen erronka aurrera eraman dute 2015-2016 ikasturtean, lehen aldiz.

Herriko aditu eta arituek zehaztutakoa beren programatan egiten zuten edo ez ikusten, eta falta zena osatzen eta txertatzen hasi dira Zaraguetan eta Ikastolan. 2 urtetik hasi eta 16 urtera bitartean, zikloz ziklo, Curriculumeko edukiak maila eta ikasgai desberdinetan lantzea dute helburu.



### Orioren historia ikasten

Orioren historia landu dute Ikastolak eta Zaraguetak hainbat proiekturen bitartez. Ikastolan, adibidez, Orioko gida turistikoa egin dute LHko ikasleek. Herriari buruzko informazioa jaso eta kanpoko norbaiti azaltzeko moduan eman behar zuten. Horrela, herriaren historia ezagutu eta bertako toponimiari buruz gehiago ikasi dute.

Zaraguetan argazki rallya egin dute. Garai bateko Orioko hainbat argazki banatu zizkieten ikasleei; berek, argazkieta-ko lekuak identifikatu eta gaur egungoarekin alderatu behar zituzten. Herriak izan dituen aldaketak ezagutzeko, zergatik eman diren ulertzeko eta ikuspuntu kritikoa lantzeko balio izan die proiektuak.

### Komunitatearen parte-hartzea

Orioko Curriculumaren lanketa eskola barruan ez geratzea eta komunitatearen –gurasoen, aiton-amonen etab.– parte-hartzea sustatzea garrantzitsua da bi ikastetxeentzat.

Zaraguetan, DBHko ikasleek egutegi historikoa egin dute bi gurasoen laguntzarekin. Etxean zituen argazki zaharrak eskolara eraman eta horiek aukeratzen lagundu zien ikasleei batek. Besteak diseinu grafikoan egiten du lan eta egutegiak egiten erakutsi zien.

Ikastolan, komunitateak transmisiorako duen indarrari garrantzia eman diote. LHko ikasleak, adibidez, aiton-amon-oi galdezka aritu dira proiektuen inguruan datuak lortzeko. Garai batean Orion nola bizi ziren eta, batez ere, nola hitz egiten zuten ikasi dute. Izan ere, bertako lexikoa ondoen gorde-tzen dutenak dira aiton-amonak.

Hizkuntzaren arloan, herrian ematen den euskararen erabilera ikertu zuten Ikastolako LHko eta DBHko ikasleek. Proiektu horretan ere, herriko hizkerak kaleetan duen tokia aztertu zuten.

Martxoaren 8an ere herritarrei begira jarri ziren Zaraguetan. Ikasleek, berentzako erreferentziazkoak ziren emakume oriotarrak aukeratu zituzten. Berekin egon, argazkiak

“Herri izaera transmititzeko gune bihurtu dira eskolak eta, lan horren garrantziaz jabeturik, Orioko Curriculumak ekarritako erronka aurrera eraman dute pasa den ikasturtean.”



atera eta kartelak egin zizkieten emakumeen egunean plazan jartzeko. Herrian bertan erreferenteak sortzeko eta emakumeen lana balioan jartzeko izan da proiektua.

### **Balearen eguna ikasgai**

Aurten herrian Balearen Eguna egingo zela baliatuz, gaia lantzeko proiektuak egin dituzte bi eskoletan.

Haur hezkuntzakoekin hilabete eta erdiko proiektua egin dute Zaraguetan. Balearen plazara joan eta bertsoek kontatzen zutena ikasi zuten lehebizi, eta kontakizun horietatik abiatutako antzerkia prestatu zuten. Antzerkia girotzeko, eskola kanpoko pareta bat margotu zuten ikasle guztien artean.

Horrez gain, Donostiako Aquariumera joan ziren balearen hezurak ezagutzera eta eguneko zentzokoekin Balearen Bertsoak abestu zituzten. Bertsoetatik abiatuta neurriak eta matematikak landu zituzten bi ikastetxeetan, eta neurri errealeko baleak marraztu zituzten.

Ikastolan, bertsoen neurriak lantzeko erabili zituzten balearen bertsoak musikako ikasgaietan. Natur zientzietan, berriaz, balearen ingurunea eta itsasoko elementuak landu zituzten.

### **Lehendik lantzen zenaz kontziente**

Orioko Curriculumak eskoletan aplikatzen hastean, lantzen diren eduki edo gai askok lehenik ere beren curriculumean leku handia zutela jabetu dira, bai Ikastolan eta baita Zaraguetan ere.

Txikienetik hasi eta DBHra arte, ziklo desberdinetan, urtez urte Curriculumeko eduki guztiak programan sartzea dute helburu, hasieratik. Edukiak eskuan izan eta programak planifikatzerakoan konturatu ziren eduki horietako asko dagoeneko lantzen zituztela, modu *inkontzienteago* batean. Zaraguetakoek, adibidez, urtero egiten zuten Balearen Egunaren inguruko lanketa. Eta Ikastolakoek Oriaren itsasadarra ezagutzen zuten Azterkosta proiektuaren bitartez. Orioko Curriculumak hori antolatu eta programen barruan kontzienteki txertatzeko balio izan die eskolei.

“Edukiak eskuan izatean eta programak planifikatzean konturatu ziren eduki horietako asko dagoeneko lantzen zituztela, modu *inkontzienteago* batean.”



Orioko Gure Esku Dago

## Hurrengo urratsa: herri galdeketa

**Hilabeteak dira herritarrei hitza eta bozka emateko asmotarekin lanean dihardugula. Jende multzo bat elkartzen gara, Orioko talde eragilea sortzeko asmoz, data zehatza jarri eta herriari galdetzeko gogoz**

**H**kainaren 5a erabakiorra izan zen Euskal Herriko 34 udalerritan, tartean gure eskualdean dagoen Azpeitian. Hitza eta bozka emateko aukera 125.000 herritarrek izan dute. Horietatik 36.888k bozkatu dute estatus politikoaren inguruan, %29,4k. Eta, 35.124 izan dira euskal estatu burujabe edo independentea aldeztu dutenak.

Eskualdean Azpeitia izan da urratsa eman duen lehen herria. %39,39ko parte hartzea izan da eta euskal estatuaren alde azaldu direnak bozkatu dutenen %94,62a izan da.

Orioko Gure Esku Dagok ere pauso bat eman nahi du eta pertsona guztiei hitza nahiz bozka emanda, etorkizunak nolakoa izan behar duen erabakitzeko eskubidea eman nahi die. Orain arte, GED taldearen eraginez eta bultzadaz, modu indibidual eta kolektiboan, dinamika ugari egin dira Orion, baita Euskal Herrian ere.

Ekimena sortu zenetik herriko nahiz Euskal Herriko ekimenetan oriotarrek ere parte hartu dute. 2014an Durango eta Iruñea lotu zituen giza katearen kate-begi izan ginen; 2015ean Hego Euskal Herriko lau hiriburuetako eta Bainonako hautesontzi erraldoiak eraiki ziren, eta Donostiako Zurriolako puzzleko pieza izan ginen oriotarrak ere; 2016a herri galdeketen urtea da, datorren urtean jarraipena izango duena.

Hilabeteak dira herritarrei hitza eta bozka emateko asmoarekin lanean dihardugula. 2016ko apirilaren 30ean dei egin genien oriotarrei, kontsultarako prozesua abiatzeko. Urola Kostako beste hiru udalerrirekin ere harremanetan gaude, tartean Aiako Gure Esku Dagorekin. Guztia zehazteko dago, baina asmoa indarrak batzea da eta 2017an galdeketa elkarrekin egitea.

Hitza, erabakia eta etorkizuna gureak izango dira. Gure esku dago.





# Lehenengo Bertso Txapelketa

**H**amabi lagunek hartu zuten parte Orioko I. Bertsolari Sari Nagusian. Egun osoan tabernaz taberna aritu ziren bertsoan eta eguerdian hasitako festa iluntzera arte luzatu zen. Etxeluze gaztetxean eman zitzaion amaiera festari; lehendabizi txapelketaren finalarekin eta kontzertuekin gero.

Finalean bi talde izan ziren oholtza gainean. Bata, Iker Gurrutxagak, Joritz Bastarrika Txatxarrok eta Jokin Zumeta Zieltzetak osatutakoa; eta, bestea, Iñaki Larrañaga, Haritz Larrume eta Jon Agirresarobe Torrotxo bertsolariena. Azken horiek irabazi zuten txapelketa.

**ERRIKOTXIA**

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkarara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk eka-ritakoa dela jarrita.

GORA 2016ko  
SAN PEDRO JAIK!  
JATETXEA  
**Galerna**  
Antillako Hondartza 5  
20810-Orio-Tel.:943 89 04 16

libe  
dietetika  
elikadura aholkularitza  
eusko gudañak 35 :: ORIO  
[ sarria Artanzole kaleak ]  
943 53 64 94 :: 697 23 86 56  
libegarmundia@gmail.com



Loiolako San Ignaciok Iturriotz baserri honetan pasatu zuen Parisetik etxera egin zuen bidaiako azken gaua.

# Ignacioren bidea

## Oroimenaren kutxa

**A**zken KARKARAN, Torrotxok eta Unai apaizak gogoeta bana eskaini ziguten bidaiaz (19. or.), zer eta nola ulertzen duten haiek bidaiaz. Nik oraingoan haiek zabalduko ditut. Bidaiatzen.

*Ignaciori bideak bizitza aldatu baldin bazion, eta Ignaciok mundua, gaur egun gauza bera gerta liteke, XXI. mendeko gizon-emakumeekin.* Horixe esan zuen Donostian San Ignacioren biderearen bultzatzaile batek.

Loiolako Ignacioren bidea eguneratu nahi dute, hark 1522an oinez egin zituen Azpeitik Manresarainoko 700 kilometroak, Santiago biderearen beste aldaera bat eskaini, alternatiba eusko-katalana, eta horrela jendea erakarri eta turismoa eta ekonomia indartu.

Horta de San Joan Tarragonako herri txiki bat da. Herritik kilometro batera, mendian, eliza eder bat dago, santutegi bat, tenplarioek 1543an eraiki eta San Salvador izendatu zutena. Orain bi urteko uztailean ezin izan ginen elizan sartu, itxita zegoen. Langabeziak eta horrek jendeari dakarkion egoera estu eta larriak askori zorrotzu egiten dio adimena. Iazko uztailean zabalik zegoen; kanpoan gazte bat, kazetaritza ikasia, langabezian, eta tenplarioen elizaren atarian jendea bertaratu zain, eliza eta San Salvador santu katalanari buruzko azalpenak emateko prest, bisitari bakoitzaren 3€ren truke. Haren bidez jakin genuen istorio ederra, Katalunia eta Euskal Herria lotzen dituen:

“Salvador XVI. mendeko gizon on bat zen, Horta de San Joangoa. Jendea sendatzen zuen. Horixe zuen eginkizun. Abildade berezia zuen horretarako, jakinduria edo jainkotasun-

ukitua. Jende asko inguratzen zitzaion. Behin, Nafarroako noble bat, alabagormutuarekin batera. Salvadorrek bere magia erabili zuen neskaekin eta, gero, diagnostikoa eman aitari: `etxera iristen zaretenean, orduan entzungo dituzu lehenengo hitzak alabaren ahotik`.

Eta horrelaxe izan zen, Tarragonatik Nafarroarainoko bide luze eta gogorra, sendaketaren itzaropenez, asto gainean egin eta gero, etxera iritsi eta miraria gertatu zen, alaba hizketan hasi zen. Baina, hara, huraxe ustekabea, ez zioten ondo ulertzen, hizkuntza ezezagun arraro batean mintzatzaren zitzaien. Asto gizajoa, berriro ere lanean jarri zuten Katalunia bidean.

Salvadorrengana iritsita, hark azaldu zien mirari okerraren arrazoia: neskari magia ekarri zion lurraldeko hizkuntza erantsi zitzaion haren mingainari, katalana. Salvadorrek okerra zuzenduta, aita- alabak etxera itzuli ziren, biok elkarri ondo ulertzen ziotela”.

Horraino katalan haren kontakizuna. Gazteak ez zigen esan aita-alabak euskaraz etxeratu ziren, edo gaztekeraz, edo nola. Bizkorra da katalana. Entzuleon interpretazioaren baitan utzi zuen. Euskaldunak, istorioa entzunda, ez du zalantzarik izango euskaraz hitz egin zuela neska sendatu berriak; nafar espainiar zaleak ere ez du zalantzarik izango. Seguru. Ipuinaren kontalari hark badaki literaturan tarte bat utzi behar dela entzule-irakurleak asmatu dezan.

Zer gauza ederra Azpeitia eta Manresa arteko bideko herri bakoitzean antzeko istorioen bat bageneuka, gauean ostatuan bertako norbaitek kontatzeko. Erromes ibiltariet gaueko istorio bat, eguneko nekearen aringarri. A zer literatura-ibilaldia! Hori bai Literatura!

Ignaciok Aiako Erniopeko Iturriotz baserrian pasatu omen zuen Parisetik Azpeitira ekarri zuen bideko azken gaua, etxera iritsi aurretik. Pentsa Iturriotzko iturriko ur hotzak eragindako mirariari buruzko kontakizunak nolako zirrarak sortuko lituzkeen erromes nekatuengan!

# Korrontzi Harribilekin dantzan



Emanaldiaren momentu bat, Korrontzikoak taula gainean . BAGA BIGA

## Kritika Korrontzi dantzan

**Dantza eta musika emanaldia,**  
"Harribil dantza taldeak eta Korrontzi musika taldeak emaldia eskaini zuten"

**U**rtean zehar isilpean, burubelarri jardun ondoren, halako egun batean, herria kartekez josi eta emanalditxoren bat edo bestera gonbidatzen gaitu Harribilek. Horietako bat izan da Korrontzi eta Oinkarirekin egin duten kolaborazioa.

Egia esan, emanaldira joan aurretik, heuren ahotatik entzunda nuen urduri zeudela herritarren aurrean emango zuten kalitatea ez zelako Oinkarirenarekin alderatzeko modukoa. Izanere Oinkari kalitate handiko dantzarietz osaturiko konpainia da. Baina, benetan diotsuet Harribil, aisialdia betetzeko, dantzak elkartzen dituen herritar xume batzuk izateko, oholtza gaineraino igo eta txapela kentzeko moduko emanaldia eskeini zeniguten! Benetan harro sentitu nintzen nire taldekide ohiak eta herritarrak halako grina eta kalitatearekin dantzan ikusteaz!

Elkarlana borobil irten zen, emanaldi ezberdin bat aurkeztu ahal izan zeniguten, non zuzeneko musika eta dantzak bat egiten zuten sekulako harmonian!

Ez zait zorion bero bat ematea besterik geratzen!! Bejondeizuela!

GOIURI UNANUE

**arkaitz taberna**  
orrio

- Ogitaratekoak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta

Terraza ederrarekin  
Giro ezin hobea

**abeslari kalea 6 - 943 831 657**

**EKILORE GARBIKETAK**

626417841  
ekilore@outlook.es

ttipi orain arropa ere bail

ttapa

943259695  
ttipittapa.oihane@gmail.com  
Eusko Gudarien, 15 - 20810 Orrio

**LEUNDA OKINDEGIA**

**ORDUTEGI ALDAPAKETA** 94389 0067

asteleheneretik-larunbatera igande eta jai-egunetan  
7.00-13.30 / 17.00-20.30 7.00-13.30



## LARDIZABAL HERRI ESKOLA

### Ingeleseko barnetegia



Aurten, 5 eta 6. mailako ikasleak ingeleseko barnetegira joan gara, Beirera. Maiatzaren 23tik 27ra egon ginen bertan Aiete, Getaria eta Aiako ikasleak. Aste osoa bertan pasatu genuen eta jarduera pila bat egin genituen egunero. 6 monitore zeuden eta guri 5 talde-tan banatu ziguten, eskola guztietako ikasleak nahasirik. Egun batean, Olitera oinez joan ginen eta han gaztelua bisitatu genuen. Oso ondo pasatu dugu eta lagun berriak egin ditugu.

## ORIOKO HERRI IKASTOLA

### LH5 eta LH6 gida turistikoak



LH5 eta LH6 ikasleek, turisten gida lanak egin ditugu. Añanan bizi diren helduak etorri dira bisitan. Lehen geldialdia plazan egin dugu etaz Zubia, Mutiozabal Ontziola eta Kofradiari buruzko azalpenak eman dizkiegu. Gero, Salatxotik barrena, Salatxo eta Elizari buruzkoak kontatu dizkiegu eta bukatzeko, geldialdia Pilliku plazan egin dugu. Datorren ikasturtean Añanara joateko asmoa dugu eta aitona-amonek hango berri emango digute.

## ZARAGUETA HERRI ESKOLA

### Zuhatzara irteera Eskolarekin



LH6koak Zuhatzan izan gara ekainaren 9tik 10era. Autobusez joan ginen, eta, gero, uhartera, itsasontziz joan ginen. Segurtasunari garrantzia ematen diote eta urpeko ekintza guztietarako txalekoa jartzera behartu gintuzten. Ba al zenekien Zuhatzari untxien uhar-tea ere deitzen zaiola? Untxien aurka lasterketa bat egin genuen baina zoritxarrez untxiak irabazle atera ziren. Saiatuko al zinatekete untxien aurka lasterketa bat egiten?



Olatz Genova

### Udara badator

**A**gur neguari, eta harekin batera hotz, euri, arropa lodi eta antzekoei. Lan gogorraren ostean iritsi zaigu horrenbeste itxaron ditugun oporrak. Udako beroa izango dugu orain berotuko gaituen estalkia eta hondartzako itsasoa, epelduko gaituen haize

gailu naturala. Egunen kontua galduko dugu, asteburu luze batzuen barrenean betirako harrapatuta geldituko bagina bezala. Gure bizimoduari bira oso bat emateko aukera izango dugu, urte osoan gauzatu nahi izan ditugun helmugak betez, lagunekin denbora aprobetxatuz, oporretara joanez eta beste hainbat ekintza burutuz. Ardurak atzean utzi, eguraldi ona gure kezka bakarra bilakatuz.

Etorkizunari begiratuz gero, iraganarekiko antzekotasun handiak aurkituko ditugu, bietan gu eta geure lagun nahiz familia agertuko baitira urtaro eder honetaz gozatzen. Eskuin nahiz ezkerretara begiratu bat botaz gero festak, jaiak eta antzekoak besterik ez ditugu topatuko. Eta barre algarak bilakatuko dira geure lagunik onenak, udako opor deitu ohi ditugun egun hauetan zehar.

Pertsona bakoitzak bere modura ospatu ohi du urtaro hau. Baina ez dut uste, uda gorroto duen pertsonik bade-nik eta horrela bada nik behintzat ez dut ezagutzen. Eta gogoko al duzu zuk uda?

# Orioko plazak asteburuetan itxita jarraitu behar al du?



Orioko plaza. KARKARA

Aurreko legealdian onartu zen plaza asteburutan autoentzat ixtea. Ordutik, asteburuetan plaza itxi egin da. Erabaki horrek iritzi kontrajarriak sortu ditu. Batetik, herriarentzat onura ekarri duela pentsatzen dutenak daude; baina, beste alde batetik, herriko negozioei kalteak ekarri dizkiola uste dute hainbat ostalarik.

Gaiaren inguruan ari dira hausnartzen politikariak, ostalarien izenean jasotako eskari baten harira. Gaia mahai gainean dago. Ez da ezer erabaki.

## Ostalari eta merkatariek desados

Herriko hainbat ostalari eta merkatariek plaza autoentzat irekitzeko eskaera egin zuten maiatzean. Orioko ostalarien izenean egin zuten eskakizuna.

Ostalariak azaldu zuten, maiatzaren 3an bildu egin ziren eta plaza ixtearen gaineko kezka mahaigaineratu zuten. Duela lau urtetatik herriko plaza asteburuetan autoentzat itxi egiten da,

oinezkoentzat utziz, eta ostalaritzaren sektorearentzat esperientzia negatiboa izan dala esan zuten. Beren sektoreak herrian duen pisua aintzat hartzeko eskatzen zuten, eta, hori horrela, lau eskari egin zituzten.

## Ez ixteko eskaera Udalean

Ostalariak lau eskaera egin zituzten. Batetik, asteburuetan herriko plaza ingurua ez peatonalizatzeko eta Goiko Kaleko zirkulazioa irekitzeko eskatu zuten. Bigarrenik, plazan osteguneko azokaren berri emango duen seinaletika bertikala jartzeko eskaera egin zuten. Seinale horietan azokaren eguna eta ordutegia jartzea eskatu zuten, besteak beste. Hirugarren eskaera azokaren bezperan plaza inguruan aparkatzeko aukera edukitzea da. Orain debekatuta dago asteazken arratsalean plazan uzteakotzea eta hori aldatu nahi dute ostalariak. Bukatzeko, udako larunbatetan eta igandeetan zirkulazioa

Txanka bidetik ez bideratzea eskatu dute. Autoei herritik ateratzeko aukera eskaintzea eskatu dute.

## Erantzuna azterketa baten menpe

Plazan saneamendua berritu egin behar dute eta udalak azterketa bat egiteko enkargua eman dio enpresa bati. Azterketa horretan plaza ixteko ala irekitzeko hiru planteamendu egingo ditu enpresak.

## Batzordera eraman dute gaia

Maiatzaren 12ko batzordean eztabaiatu zen gaia. Batzordean esan zenaren arabera, PSE-EEk eta Orain Herri Plataformak herri kontsulta bideratuko dute erabakia hartzeko. Guztiak ados agertu ziren bi alderdi horiek azaldutako asmoarekin, eta, oraingoz, horretan gelditu zen gaia. Alkatetzak eta udal gobernua bultzatu beharko lukete kontsulta eta herritarrek erabaki plaza autoentzat itxiko den ala ez.



## EAJ PNV Herriko plaza

Herri eta hirien peatonalizazioek herritarrengan badituzte ondorioak: onak eta txarrak.

Eragin positiboez jabetzen gara, baita negatiboez ere. Trafikorik gabeko guneak herri espazioetan disfrutatzeko guneak bilakatzen dira. Baina, aldi berean, hainbat kolektibo eta sektoreengan oztopo eta trabak sortu ditzake.

Beraz, egun dugun peatonalizazio sistemak ere, aspektu positiboak eta negatiboak dituenek, kontu hau erantzuterakoan, herritarren sentipenak, iritziak... kontutan hartu beharko dira. Ondorioz, EAJk herriaren gune peatonalizatuaren inguruan lan-keta integral bat, konpartitua eta ikuspegi multidisziplinari batekin planteatu beharko litzatekeela pentsatzen du. Hau da, honen guztiaren erantzuna, herriarekin elkarbanatuz burutu beharko genuke. Honek, herritarren iritzia sentitu eta horren inguruan hausnartzeko nahiko irizpide emango digu.



## Orain Plaza itxita edo irekita?

Orioko ostalariek/merkatariek idatziak sartu dituzte Udalean eta Obra eta Zerbitzu batzordean lau eskaritik bi onartu ziren. Zirkulazioari lotutako beste biak txosten teknikoan zain gelditu ziren -plaza asteburuetan irekitzekoa tartean-. Gaia aurretik zegoen talde politikoan mahai gainean, hirigintza batzordean plazaren berurbanizazio lanen idazketa esleitzeko pleguak onartu ziren. Aritzaga kalea -Herriko Plaza- Endaia Plaza berrurbanizatzeko eta lurpeko azpiegiturak berritzeko exekuzio proiektua idazteko kontraturako lehiaketa publikoa onartu da. Tartean plazarako hiru planteamendu eskatuko zaizkio. Kontratuaren iragarkian kostua gehienez 59.895 eurotan jarri da. Batzordean PSOEk eta ORAINek erabakia kontsulta herriko bitartez hartu beharko zela adierazi zuten: merkatariek, ostalariek eta herritarrek erabaki behar dute. Alkatetza eta udal gobernuak EAJ-k du, berak bultzatu beharko luke kontsulta.



## EH Bildu Plaza oinezkoentzako irekia

Orioko herriak bere egin duen kaleak oinezkoentzat jartzeko politika, Europa mailan jarduteko ildo nagusi izaten ari da eta horren arrazoia hiriaren filosofia berria aurkitzen da, hiri espazio publikoa pertsonen eta ez makinen erabil dezaten babestean, alegia. Jakina da kaleak oinezkoentzako irekitzeak herritarren bizi kalitatea hobetzen duela; ibilgailu motordunek isurtzen duten kutsadura akustiko zein atmosferikoa gutxitzean herriko erdialdea, herritarrak erakartzeko, elkartzeko, eta bizitzeko gune bihurtzen da espazio publikoak sortuz. Motordun ibilgailuentzako ixten diren kaleak eserlekuz eta lorez apaintzen dira, oinezkoentzako atseginak diren topaleku bihurtu, bertako merkataritza-guneetara sarrera erraztu eta herriko merkataritza indartu. Orioko herriko plaza motordun ibilgailuentzako itxita edukitzea ez da kontzeptu filosofiko soil bat eta, umeen gurgildun aukitxoekin herriko plaza zeharkatzera behartuta dagoen edozeinek ederki asko daki hori.



## PSE-EE Erabakia oriotarrena da

Herrirako sarbideko kalea asteburutan ixteko erabakia pasaden legegintzaldian onartu zen, alderdi guztien babesarekin. hasiera batean ixtea aldi baterako zen arren, ia beti gertatzen den moduan, behin betikoa bilakatu da. Egun, herriko hainbat sektoreek asteburuetan plazako kaleak irekitzea eskatu die Udalari.

PSE-EEK azken erabakia oriotarrek hartu behar dutela uste du eta ez alderdiek. Erabakia herri kontsulta batean hartu beharko litzateke. Orioko bizilagunen erabakiak loteslea izan behar du eta Udalak nahiz oriotarrek errespetatu egin beharko dute. Honela, oriotarrek izango lukete beren herriko bizitzak nolako behar lukeen erabakitzeko eskubidea, eta bozketan parte hartzeko ardura. Herrian asteburuetan gune peatonala edukitzea ona da, baina eragozpenak dakartzanez, herritarrak dira erabakia hartu behar dutenak.

# Aiako hainbat guraso ere erraustegiaren kontra

## Zubietan eraiki nahi duten erraustegian izan dezakeen eraginaz arduratuta, hainbat aiarrek erraustegiaren kontra egin dute.



Aian ere arduratuta daude Zubietan egin nahi duten erraustegiarekin. Kezkatuta dauden hainbat aiar elkartu dira gaiaren inguruan hausnartzeko eta herri mailan erraustegiak dakartzan ondorioz eta eraginez hitz egiteko. *Informatzeko foro bat faltan sumatu dugu herrian. Hori dela eta, informazioa zabaltzea eta gaiaren inguruan zintzotasunez eta datu objektiboetan oinarrituta hitz egiteko eskatzea jarri ditugu helburutzat*, azaldu dute taldeko kideek. Informatzeko, GuraSOS elkarteak apaitzen duen apartidismoa

bere egingo dutela argitu dute. Hondakinaren kudeaketa arazo bihurtu dela irizten diote Aiako taldekoek. Batzuetan ustetan, hondakinak kudeatzeko modu bat da errausgailuarena; beste batzuentzat, ordea, ez. Aiako talde honen kasuan, ez da irtenbide egokia. Eta, horren aurrean, hondakinak erretzeak dakartzan eragin kaltegarriak azaldu nahi dituzte eta birziklatzea dela irtenbidea. Dena den, Aiako birziklatze tasak ere arduratzen ditu, 2015ean %24,88koa baita birziklatze tasa eta lehendabizi

hondakinaren sistema horretan asmatu behar dela iruditzen zaie. Honen guztiaren gainean hitz egiteko hitzaldiak antolatu dituzte. Dagoeneko lehendabizikoa egin zuten, ekainaren 16an. Hurrengoak ekainaren 27an -sendagileak eta hematologoak ikerketa medikuek diotena azalduko dute- eta uztailaren 5ean -EHUko irakaslea errauskailuaren eragin ekonomiko eta teknikoaz- izango dira. Hitzaldi horietara joateko gonbita egiten dute taldekoek. @karkara.eus/aia/1466569187243

## HILA IRUDITAN



## HASI TXIOKA

Zuk Berdótua  
 Lander Sarasola @SarasoLander - eka. 5  
 Orioko #kalakari tabernan @jonazkue25 animatzen!  
 Aupa @CDBidasoalrun!  
 Eman egurra!!!

Zuk Berdótua  
 Baga Biga @BagaBigaeus - eka. 12  
 Zorionak @Korrontzi! Zorionak harribil dantza taldea! Zorionak Orio!!  
 📍 Jk goiko, Kika Mora, César Ibarbea and Orioko Udala

Zuk Berdótua  
 orioarraunean @orioarraunean - eka. 10  
 youtube.com/watch?v=b8r2cV... /  
 Olatz Zugasti and Sean Keane on The Blue of the Night / #orio  
 #arrauna #oriyo #mirotzak #rowing #aviron #rem

Zuk Berdótua  
 Jabier Zabaleta @js2er - eka. 10  
 Xanti Agirezabala eta Telmo Iureta Orioko kultur etxean bikain



## Kultura

### 750 euroko sarrera eta 29.244,53 euroko gastua

Udalak publiko egin ditu Balearen Egunaren harira antolatutako ekimenen sarrerak eta irteerak. 29.244,53 euroko gastuak izan zituen Udalak Balearen Egunean. Diru hori gastatu zuen egun osoko festa nahiz aste guztiko ekimenak antolatzeko. Gastuen artean garestiena balea izan da, 11.616 euroko kostua izan zuena. Valentzian egin zuten balea, Disney enpresarako puzgarriak egiten dituen enpresa batean. Sarrera bakarrak pin-txo eta sagardoekin lortu zituen, 750 euro guztira.

@karkara.eus/orio/1466173893670



## Hezkuntza

### Proiektu ekintzaileak sortzen

KIMMUkoek lagunduta, ekintzailetasuna landu dute Ikastolako ikasleek.. Zazpi taldetan banatu, gustuko gaia aukeratu, gai horren inguruan egin nahi zutena pentsatu eta proiektu errealak martxan jarri zituzten. Ekintzaile astean zehar finantzazioa lortu eta beren proiektuak martxan jarri zituzten; baina hor ez zen amaitu abentura ekintzailea, ikasleek proiektuekin aurrera jarraitzeko asmoa erakutsi baitzuten.

@karkara.eus/orio/1466411756190

### Gizartea

#### GBL onena egin du Garatek

Mondragon Unibertsitateko ikus-entzuzko komunikazioko azken ikasturteko ikasleen Gradu Bukaerako Lan eta aurkezpen onenak saritu ditu Kimu Berrik. Jon Garate izan da irabazlea.

### Kultura

#### Adarra Saria Benito Lertxundiri

Benito Lertxundiri eman diote hirugarrenetaz banatu den Adarra Saria, Donostiako Viktoria Eugenioan. Saria jasotzean zaleei eskerrak eman zizkien Benitok eta, ondoren, kontzertua eskaini zuen.

### Ingurumena

#### Hondartza garbiketa

Gipuzkoako hondartzen denboraldiko garbiketarako eta mantenturako milioi bat euro bideratuko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen departamentuak.

### Gizartea

#### Urkizuren saioa Goiena TB

Bota Erronka saioa ekoiztu du Iratz Urkizuk hainbat ikaskiderekkin batera. Saioko partaidea eta aurkezlea da Urkizua eta programa Goiena Telebistan emititu dute.

### Kultura

#### Musika Eskolako izen-ematea

Musika Eskolan izena emateko epea zabaldu da ekainaren 22an. Uztailaren 6ra arte izango da izen emate epea zabalik eta irailen berriz ere irekiko da. Ohi lez, maila bakoitzak hainbat aukera ditu

### Gizartea

#### Global Training bekak

Maiatzaren 30ean hasten da atzerrian ordaindutako praktika-bekak eskuratzeko izena emateko epea. Unibertsitate-titulua edo goi-mailako lanbide ikasketak dituztenek lortu ditzakete bekak.



**mauka**

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL: 943 572 083  
FAX: 943 571 190  
lasenjo@hotmail.es

INES ASEÑO  
ABESLARI, 1  
20810 ORIO

KAFETEGI - OKINDEGI - GOZOTEGIA



**GELATTO**

943 578 176  
Herriko enparantzan

**lzozki naturalak - Opilak**



Maidor Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.  
Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa  
Tel. 943 575 361

**oinarri**  
PODOLOGIA ZENTROA



**Portu ERRETEGIA**

Santio Erreka Auzoa, 66  
943 89 4404  
20809 AIA-ORIO

*luzakak, lasenjoak, oinak  
funtzio erretak, erretak, erretak*

**PERTSIANAK**

A K O M A Z



Aluminio, PVC  
Venezianak  
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

**ROSANA**  
-ARGAZKI ESTUDIOA-



fotorosanaarruti@gmail.com  
tel: 943 83 58 45



943831048  
610697668

[www.fotoramiro.com](http://www.fotoramiro.com)



**EGIGUREN**

ERKONTZAK  
JAUNARTZEAK  
ARGAZKI SESIOAK:  
- JAIO BERRI, UME, HELDU ETA ANIMALIEKIN

MARKOAK NEURRIRA  
ARGAZKI INPRIMATZIOAK EDOZEIN NEURRITARA

PRODUKTUEN IRAGARKIETAKO ARGAZKIAK  
ENPRESA TXIKI EDO HAUNDIENTZAKO  
IRAGARKI BIDEOAK

**SANPEDROAK**  
2016

INFORMAZIOA:  
943.03.04.25 - 607.54.27.63  
EUSKO GUDARI 5 - BEHEA - 20810 - ORIO

**FESTAK ONDO PASA**



gizarte  
**kutxa**



Imanol Ilarramendi  
Aia (Gipuzkoa)

**KORTABERRI**  
arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com  
665 70 33 47

## AZOKA

## Alokairua

■ Pisu bat nahi dut abuzturako. Ezinbestekoa igo-gailua izatea.

Telefona: 616544478

## Salgai

■ Arrautza ekologikoak salgai: 5€ dozena arrautz. 656772428

## Lan eskaitzak

■ Aiako jatetxe baterako zerbitzari euskaldun bila, barra nahiz jangelarako. Asteburu eta ospakizunetarako. 943834322

## Erosgai

■ Trastero edo bodega bat erosi nahi dut erdigunean. 663028365 -Lore-

## Orio

## Mandalara

■ Uztailaren 9an eta 10ean, Chikung CFQ Ikastaroa. 9:00etatik 14:30etara.  
■ Uztailaren 25etik 31ra, energia eta in-tuizio ikastaroa, 16:00etatik 21:00etara. Bi ikastaroak Alex Arellanoren eskutik.

## Aurkezpenak

■ Uztailaren, eskualdeko Alkoholiko anonimoen urteurren hitzaldia, 19:00etan, Zarauzko Modelo aretoan.

## Aia

## Iturriozko sanjoanak

■ Ekainaren 24an, San Joan eguna. 10:30ean, meza; ondoren, herri kirolak auzoko gazteekin; jarraian, bertsolariak eta trikitixa; bazkaria. 21:30ean, erromeria Tapia eta Leturia eta Laja eta Lutxurdiorekin.  
■ Ekainaren 25ean, 11:30ean, meza eta ondoren hamaiketako, 22:30ean Izer, Alabier eta Lutxurdiorekin.  
■ Ekainaren 26an, 14:00etan Bazkaria Izurtzun. Ondoren Astiazaran eta Nar-

## BOTIKAK

**Azaldegi:** Urdaneta kalea, 8. 943133183 Zarautz  
**Etxeberría:** Gipuzkoa kalea, 17. 943832398 Zarautz  
**Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943832970 Zarautz  
**Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943133814 Zarautz  
**Lasa:** Herriko plaza. 943830936 Orio  
**G. Artiñano:** Zigordia kalea, 17. 943134019 Zarautz  
**Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea, 943132983 Zarautz  
**Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943133994 Zarautz

## UZTAILA:

■ 1ean, Lasa  
■ 2an eta 3an, Etxeberría  
■ 4an, Lasa  
■ 5ean, Iriarte  
■ 6an, Larrañaga  
■ 7an, Mutiozabal  
■ 8an, Etxeberría  
■ 9 eta 10ean, G. Artiñano  
■ 11n, Iriarte  
■ 12an, Larrañaga  
■ 13an, Mutiozabal  
■ 14an, Etxeberría  
■ 15ean, Lasa  
■ 16an eta 17an, Azaldegi  
■ 18an, Larrañaga  
■ 19an, Zulaika  
■ 20an, Etxeberría  
■ 21ean, Lasa  
■ 22an, G. Artiñano  
■ 23 eta 24an, Mutiozabal  
■ 25ean, Zulaika  
■ 26an, Etxeberría  
■ 27an, G. Artiñano  
■ 28an, Azaldegi  
■ 29an, Zulaika  
■ 30 eta 31n, Larrañaga

baiza trikitian eta Mujika eta Mendizabal bertsoan.

## Elkanoko sanpedroak

■ Ekainaren 28an, 20:00etan, festen hasierako txupinazoa.  
■ Ekainaren 29an, 8:00etan, txupinazoa suziri eta kanpaiekin; 11:30ean, meza nagusia; ondoren, auzoko en arteko tortila patata lehiaketa; afalostean, Laja eta Larrañaga.  
■ Uztailaren 1ean, 11:30ean, haur jolasak; 21:30ean, auzoko afaria frontoian; ondoren Izer eta Alabier.  
■ Uztailaren 3an, 11:30ean, meza nagusia; ondoren, herri kirolak Ostolaza eta Narbaiza trikitilariekin; 18:00etan, idi probak; ondoren, erromeria 22:00ak arte Ostolaza eta Narbaizarekin.

## Andatzako sanpedroak

■ Ekainaren 28an, 20:00etan, txupinazoa; 21:30ean, garai bateko Mutil Ardo-koen afaria Uhartemuñon.  
■ Ekainaren 29an, 10:30ean, meza; gero, salda; 13:00etan, auzotarren herri kirolak; gero, trikitilariak; 14:00etan jubilatuen bazkaria Aristerrazun; 18:00etan, herri pilota txapelketa; gero, txapel eta txinga txapelketa; 22:30ean, erromeria.  
■ Ekainaren 30ean, 10:00etan, meza;

## ITSASOIA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	02:15 eta 14:48	08:23 eta 20:53	☾
02	03:17 eta 15:44	09:20 eta 21:50	☾
03	04:12 eta 16:35	10:12 eta 22:42	☾
04	05:02 eta 17:23	11:01 eta 23:30	☾
05	05:49 eta 18:08	11:46 eta ____	☾
06	06:33 eta 18:51	00:16 eta 12:30	☾
07	07:17 eta 19:34	01:00 eta 13:13	☾
08	07:59 eta 20:16	01:43 eta 13:56	☾
09	08:42 eta 20:59	02:27 eta 14:39	☾
10	09:27 eta 21:45	03:11 eta 15:25	☾
11	10:16 eta 22:37	03:59 eta 16:16	☾
12	11:12 eta 23:36	04:51 eta 17:14	☾
13	12:15 eta ____	05:49 eta 18:18	☾
14	00:42 eta 13:21	06:51 eta 19:23	☾
15	01:47 eta 14:20	07:51 eta 20:22	☾
16	02:43 eta 15:10	08:44 eta 21:13	☾
17	03:32 eta 15:54	09:31 eta 21:58	☾
18	04:14 eta 16:33	10:13 eta 22:39	☾
19	04:54 eta 17:11	10:52 eta 23:18	☾
20	05:32 eta 17:48	11:31 eta 23:57	☾
21	06:10 eta 18:26	12:09 eta ____	☾
22	06:48 eta 19:05	00:36 eta 12:49	☾
23	07:29 eta 19:47	01:17 eta 13:30	☾
24	08:12 eta 20:32	02:00 eta 14:15	☾
25	08:59 eta 21:22	02:47 eta 15:04	☾
26	09:54 eta 22:21	03:39 eta 16:00	☾
27	10:57 eta 23:30	04:38 eta 17:06	☾
28	12:11 eta ____	05:46 eta 18:19	☾
29	0:48 eta 13:27	06:58 eta 19:35	☾
30	02:03 eta 14:36	08:07 eta 20:43	☾
31	03:09 eta 15:35	09:08 eta 21:42	☾

11:30ean, jolasak eta tailerrak; gero, kalejira; 16:30ean, puzgarriak; 18:00etan, moto eta bizikleta lasterketak; gero, merienda.

■ Uztailaren 1ean, 9:30ean, oilasko-bil-keta; eguerdian, bazkaria; 21:30ean, mus txapelketa; 22:30ean, erromeria.  
■ Uztailaren 2an, 12:30ean, txikitxikite-  
oa; 14:30ean, kantu bazkaria; gero, triki-  
poteoa; 23:00ean, DJ pajarito; goizalde-  
an, txokolate beroa.  
■ Uztailaren 3an, 11:00etan, pilota txapelketa; gero, trikitilariak; 18:00etan, herri kirolak; ondoren, sagardo dastaketa eta otartekoa; 22:00etan, erromeria; 1:00etan, traka zaratsua.  
■ Uztailaren 16an, 21:30ean, oilasko-bil-ketako afaria, Uhartemuñon.

## Aurkezpenak

■ Ekainaren 30ean, Lur Alkartasuna kooperatibaren aurkezpena, eskola berria egiten ari diren tokian.

## Podologoak

■ Uztailak 30ean, podologoaren kontsulta, sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko: 943131144.

# ERASOEN AURREAN ZER?

## SEXU ERASOEN AURKAKO PROTOKOLOA

Erasoren bat ikusten baduzu, erasotuarengana jo eta **laguntza behar duen galdetu** aurrena

**EZ** badio,  
ez tematu

**BAI** badio, lagundu,  
txosna-gunera gerturatu

Mutilak, ez izan konplize!

Txosnara **norbait erasotua izan dela** esanez baldin badator:

- 1 Salaketa jasotzen duenak egiten ari dena utzi eta erasotuari kasu egingo dio
- 2 Arretaz entzun (azalpenak, beharrak...) eta ez jarri zalantzan kontatutakoa
- 3 Leku fisiko seguru bat bermatu: entzuteko, lasaitzeko...
- 4 Erasoa identifikatu: entzun, eta erasoa zehaztu.

Erasotuari **emozionalki babes osoa** eskainiko diogu

**Erasotzailearekin** hitz egin eta argi utziko diogu **ez dela horrelako jarrerarik onartzen eta gunetik kanporatuko dugu** (hau taldearen babesean egitea garrantzitsua da: seguruagoa izateko eta gaitzespena garbi geratzeko).

**Eraso sexista larriak** gertatzen direnean emakumeari jakinarazi **beti eska dezakeela LAGUNTZA**, salaketa jarri nahi badu ala ez:

943 22 44 11 (24h)  
GIZARTE LARRIALDIETAKO  
FORU ZERBITZUA

**ERANTZUNA eman**: jai gune/kale/tabernetan eman daitezkeen eraso sexistei erantzun.

- 1 Jendeari erasoaren berri eman (ahoz aho, mikro, kartel bidez...) Izenik gabe.
  - 2 Jai gunean erasoak salatzen (arbela/pankarta... jarri)
- MORBORIK EZ!**

Antolatzaileak bildu eta **erantzuna zehaztu** (jai gunek ixtea, musika kendu une batez...)

## GOGORATU!

1. Erasotutako emakumearen erabaki guztiak errespetatuko ditugu.
2. EZ dago salaketa ezartzera behartuta, berak hala nahi ez badu behintzat.
3. Sexu erasoa bada: jakinarazi behar diogu ez duela arropaz aldatu behar, ez eta bere burua garbitu behar ere, eta aho-bortxaketa bada, ez duela jan edo edan behar, erasotzailea identifikatzeko frogak desagertu daitezkeelako.